EHK CER	94ko deskribapena Descripción 94	98ko deskribapena Descripción 98	94ko t Tm. 94	98ko t Tm. 98	98 - 94
080413		Disolbatzaile organikoak edo beste zenbait substantzia arriskutsu dituzten itsasgarrien eta zigitatzaileen lohi urtsuak <i>Lodos acuosos que contienen pegamentos y sellantes con disolventes orgánicos u otras sustancias peligrosas</i>	0	87	87
0804	Itsasgarrien eta zigitatzaileen (produktu iragazgaitzak barne) formulazio, fabrikazio, banaketa eta erabilerako hondakinak <i>Residuos de la formulación, fabricación, distribución y utilización de pegamentos y sellantes (incluyendo productos de impermeabilización)</i>		0	172	172
080501		Hondar-isozianatoak <i>Isocianatos residuales</i>	0	14	14
0805	Beste kategoría batean zehaztu gabeko hondakinak <i>Residuos sin especificar en otra categoría</i>		0	14	14
08	Gainestalduren (pintura, berniz eta beirazko esmalteen), itsasgarrien, zigitatzaileen eta inprimaketa-tinten formulazio, fabrikazio, banaketa eta erabilerako hondakinak <i>Residuos de la formulación, fabricación, distribución y utilización de revestimientos (pinturas, barnices y esmaltes vítreos), sellantes y tintas de impresión</i>		2.548	2.444	-103

Hondakin horietarik gehienak (1.821 tona, % 74,5) pinturen fabrikazio zein erabilpeneko hondakinak dira. Tinta-hondakinen kopurua txikiagoa da (437 tona, % 17,9).

La mayor parte de estos residuos (1.821 Tm, un 74,5%) son residuos tanto de la fabricación como de la utilización de pinturas, con una menor proporción de residuos de tintas (437 Tm, un 17,9%).




39. irudia. EHK 08 kategoriari dagokion sortutako hondakin-kopurua.
Figura 39. Cantidades de residuos generadas de la categoría CER 08.

Bestalde, hondakin horietarik gehienak (1.622 tona, % 66,4) Euskal Autonomia Erkidegoko enpresek kudeatzen dituzte, eta zabortegean ezabatzea izaten dute akabera ohikoena (2.130 tona, % 87,1), aldez aurretik tratamendu fisiko-kimikoren bat jasota. Zati bat (116 tona) Valladolideko segurtasun-biltegiara eramaten da.


Por otra parte, la mayoría de estos residuos son gestionados por empresas del País Vasco (1.622 Tm, un 66,4%) y su destino más frecuente es la eliminación en vertedero (2.130 Tm, un 87,1%), previo tratamiento fisicoquímico. Una parte (116 Tm) son depositados en la celda de seguridad de Valladolid.

Gutzizkoaren portzentaje aipagarri bat (314 tona, % 12,9) distilazio bide birziklatzen da, disolbatzaileak berreskuratzeko.

Una proporción significativa del total (314 Tm, un 12,9%) se recicla por destilación, para recuperación de disolventes.



40. irudia. EHK 08 kategoriako hondakinei aplikatutako kudeaketa.
Figura 40. Gestión aplicada a los residuos de la categoría CER 08.



41. irudia. E.A.E.ko eta E.A.E.tik kanpoko enpresek kudeatutako EHK 08 kategoriariko hondakinen portzentajeak.
Figura 41. Proporción de los residuos de la categoría CER 08 gestionados por empresas de la C.A.P.V. y por empresas de fuera de la C.A.P.V.

4.7.2 1994-1998 epeko bilakaera

Begi-bistakoa denez, kode-aldaketa asko izan dira 08 kategorian, baja eman baitute 080101, 080102, 080104 eta 080105 kodeek. Aitzitik, multzo honetara bildu dira 080111, 080113 eta 080115, 080310, 080409, 080413 eta 080501. Horrenbesteko aldaketak zaildu egiten du kodez kodeko konparazioa.

Bestalde, pinturen eta pinturentzako disolbatzaileen salmentak hartu zituzten oinarritzat 1994ko datuetarako eta kalkulu-portzentajeak aplikatu zitzaizkien, etxeetako kontsumoa zenbatekoa zen, pote bakoitzaren pintura-hondar hondakina... eta abar zehaztearren. 1998ko inbentarioa, ordea, hondakinen industri kudeaketan oinarritzen da soil-soilik.

1994ko Inbentarioak kategoria honetara bildu zituen pintura-hondar dun pote hutsak; gaur egun, ordea, 150108 kodean (“Substantzia arriskutsuen hondarrak dauzkaten –edo horiek poluitutako– ontzien hondakinak”) daude.

Bereizirik aztertuta pintura eta berniz-hondarrak dituzten ontziak, hona hemen emaitza. 1994an 1.230 tona hondakin sortu ziren, ustez behintzat; 1998an, aldiz, 11,7 tona baizik ez ziren kudeatu. Ondorioa: dezente hobetu beharra dagoela pintura-hondarrak dituzten ontzi hutsen kudeaketa.

Hutsune honen zergatia honakoa izan liteke: pinturen erabilera oso jarduera sakabanatua izatea, sektore guztietan burutzen baita (industriari, merkataritzari, etxeetan, eta abar). Horren ondorioz, beste batzuei pintura-zerbitzuak eskaintzen dizkieten jarduerak ere ugari dira (eta sakabanatuak oso), eta kopuru txikiak erabiltzen dituzte sarritan.

Egoera horrek –eta hondakin-mota hauentzat gaikako bilketarik ez egoteak– eragiten du pintura-hondarrik daukaten ontzi hutsak ez dagokien zabortegetara eramatea.

4.7.2 Evolución 1994-1998

Como se puede comprobar, las variaciones de códigos en el grupo 08 son sensibles, ya que ha sido dados de baja los códigos 080101, 080102, 080104 y 080105, incorporándose el 080111, 080113 y 080115, 080310, 080409, 080413 y 080501. Este hecho dificulta la comparación código a código.


Por otro lado, los datos de 1994 partieron de las ventas de pinturas y disolventes para pinturas, sobre los que se aplicaron porcentajes estimativos para determinar el consumo doméstico, la cantidad de residuo de pintura residual en un bote, etc. Por el contrario, el Inventario del 98 se basa únicamente en datos de gestión industrial de residuos.

Además, el Inventario de 1994 incluyó en este grupo los botes vacíos con restos de pintura, mientras que en la actualidad esos residuos han sido consignados en el código 150108 “Residuos de envases que contienen restos de sustancias peligrosas o contaminados por ellas”.

Analizando de forma separada los envases con restos de pinturas y barnices, se obtiene que de las 1.230 Tm supuestamente generadas en 1994 se gestionan en 1998 únicamente 11,7 Tm, de lo que se deduce que la gestión de envases vacíos con restos de pinturas debe mejorar considerablemente.

La razón de esta carencia puede residir en el hecho de que la aplicación de pinturas presenta en general un marcado carácter de actividad atomizada que se practica en todo tipo de sectores, industrial, comercial, doméstico, etc. En consecuencia, las actividades que ofrecen servicios de pintura a terceros conforman también un sector muy atomizado, y que utiliza pequeñas cantidades de aplicación.

Esta situación, unida a la falta de recogida selectiva para este tipo de residuos, hacen que los envases vacíos con restos de pintura estén siendo depositados en vertederos no apropiados.



42. irudia. EHK 08 kategoriari dagozkion hondakinen sorreraren bilakaera 1994-1998 epean. Bereizi egin dira 1994an kontuan hartutako hondakinak eta 1998an desklasifikatutakoak.

Figura 42. Evolución 1994-1998 de la generación de residuos de la categoría CER 08. Se diferencian los residuos considerados en 1994 y desclasificados en 1998.

Gainerakoan, elkarren antzekoa da oro har bi Inbentarioetako balantzea. Pintura-hondakinak (ontziak izan ezik) egokiro ari direla kudeatzen adierazten du, gure iritziz, antzekotasun horrek.

0802 multzoari dagokionez, 119 tona egin du gora kudeatutako inprimatze-tinten kopuruak.

Aipa dezagun, azkenik, 172 tona itsasgarri eta zigilatzaile-hondakin bildu zirela, baita 14 tona isozianato-hondakin ere. 1994ko inbentarioan ez ziren kontuan hartu aipatu hondakinak.

4.8 EHK 09: ARGAZKIGINTZAKO HONDAKINAK

4.8.1 Inbentarioaren emaitzak

Argazkigintzako 491 tona hondakin inbentariatu ziren 1998an, batez ere errebelatze-disoluzioak eta zuritze- edo finkatze-disoluzio agortuak. Euskal Autonomia Erkidegoko hondakin arriskutsuen % 0,2 izan ziren atal honetakoak.

Argazki-laborategi, inprimategi eta osasun-zentroek (erradiologia) sortuak dira batik bat hondakin horiek; oso sakabanaturik, bestalde: honda-

Por lo demás, el balance de ambos Inventarios resulta básicamente similar, lo cual es una señal de que los residuos de pinturas, excepción hecha de los envases, se están gestionando de manera correcta.

Respecto al grupo 0802, se observa que ha aumentado en 119 Tm el volumen de tintas de impresión gestionadas.

Finalmente, señalar que se han recogido 172 Tm de residuos de pegamentos y sellantes y 14 Tm de isocianatos residuales, residuos que no fueron contemplados en el Inventario de 1994.

4.8 CER 09: RESIDUOS DE LA INDUSTRIA FOTOGRÁFICA

4.8.1 Resultados del inventario

Se han inventariado en 1998 un total de 491 Tm de residuos de la industria fotográfica, principalmente soluciones de revelado y soluciones de blanqueo o fijado agotadas, lo cual supone un 0,2% de los residuos peligrosos de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

Estos residuos son generados por laboratorios fotográficos, imprentas y centros sanitarios (radiología), principalmente, de manera muy ato-

kin-mota horiek sortzen dituzten 317 leku inbentariatu dira, eta bakoitzak 0,5 eta 1,5 tona bitartean ekoizten du urtean.

mizada. De hecho, se han inventariado 317 centros productores de este tipo de residuos, que generalmente generan entre 0,5 y 1,5 Tm al año.


19. taula. EHK 09 kategoriariko dagozkion 1998ko Hondakin Arriskutsuen Inbentarioaren emaitzak, eta 1994-1998 epeari dagokion bilakaera. Datuak urteko tonatan daude adierazita.

Tabla 19. Resultados del Inventario de Residuos Peligrosos 1998 para la categoría CER 09, y evolución 1994-1998. Datos en Tm/año.


EHK CER	94ko deskribapena Descripción 94	98ko deskribapena Descripción 98	94ko t Tm. 94	98ko t Tm. 98	98 - 94
090101	Errebelaketako disoluzioak eta ur-disoluzio aktibatzaileak <i>Soluciones de revelado y soluciones activadoras al agua</i>	Errebelaketako disoluzioak eta ur-disoluzio aktibatzaileak <i>Soluciones de revelado y soluciones activadoras al agua</i>	2.100	164	-1.936
090102	Inprimaketa-plakak errebelaketako ur-disoluzioak <i>Soluciones de revelado de placas de impresión al agua</i>	Inprimaketa-plakak errebelaketako ur-disoluzioak <i>Soluciones de revelado de placas de impresión al agua</i>	0	3	3
090103	Errebelaketako disolbatzaile-dun disoluzioak <i>Soluciones de revelado con disolventes</i>	Errebelaketako disolbatzaile-dun disoluzioak <i>Soluciones de revelado con disolventes</i>	0	0	0
090104	Finkaketako disoluzioak <i>Soluciones de fijado</i>	Finkaketako disoluzioak <i>Soluciones de fijado</i>	1.300	90	-1.210
090105	Zuritze eta finkaketako disoluzioak <i>Soluciones de blanqueo y de fijado</i>	Zuritze eta zuritze/finkaketako disoluzioak <i>Soluciones de blanqueo y de blanqueo/fijado</i>	850	121	-729
090107	Zilarra edo zilar-konposatuak dituzten argazki-filmak eta -papera <i>Películas y papel fotográfico que contienen plata o compuestos de plata</i>	Zilarra edo zilar-konposatuak dituzten argazki-filmak eta -papera <i>Películas y papel fotográfico que contienen plata o compuestos de plata</i>	0	5	5
090108	Zilarrik edo zilar-konposaturik ez duten argazki-filmak eta -papera <i>Películas y papel fotográfico que no contienen plata o compuestos de plata</i>	Zilarrik edo zilar-konposaturik ez duten argazki-filmak eta -papera <i>Películas y papel fotográfico que no contienen plata o compuestos de plata</i>	0	0	0
090199	Beste kategorian batean zehaztu gabeko hondakinak <i>Residuos no especificados en otra categoría</i>	Beste kategorian batean zehaztu gabeko hondakinak <i>Residuos no especificados en otra categoría</i>	0	108	108
09	Argazkigintzako hondakinak Residuos de la industria fotográfica		4.250	491	-3.759

Zabortegean ezabatzea (alde aurretik tratamendupean eduki ondoren) izan ohi da hondakin hauen ohiko akabera, baina nahiko zabalduta dago beste honako hau ere: elektrolisi bidez metalak berreskuratzea soluzio agortuetatik (164 tona, %33,4), zilar-eduki handia izaten baitute. Jakina, onura ekonomikoa lortzeko asmoz burutu ohi da prozesu hori.

Aunque la gestión más habitual es la eliminación en vertedero previo tratamiento, es una práctica bastante extendida la recuperación de metales de estas soluciones agotadas mediante electrólisis (164 Tm, un 33,4%), dado su alto contenido en plata, la cual puede ofrecer un beneficio económico.



43. irudia. EHK 09 kategoriari dagokion sortutako hondakin-kopurua.
Figura 43. Cantidades de residuos generadas de la categoría CER 09.




44 irudia. EHK 09 kategoriari dagozkion hondakinen banaketa Lurralde Historikoka.
Figura 44. Distribución de los residuos de la categoría CER 09 por Territorios Históricos.

Bizkaian sortzen da argazkigintza-industriako hondakin gehien (252 tona, %51,3), eta segidan datoz Gipuzkoa (%39,9) eta Araba (%8,8).


La mayor parte de los residuos de la industria fotográfica se producen en Bizkaia (252 Tm, 51,3%), y en menor medida en Gipuzkoa (39,9%) y Araba (8,8%).

Euskal Autonomia Erkidegokoak dira hondakin horiek kudeatzen dituzten enpresa gehienak, baina kanpoko enpresek kudeatzen dute argazkigintzako hondakinen %47 (231 tona). Hondakin horietatik metalak berreskuratzea da aipatu enpresen jarduera, zeregin berean diharduten euskal enpresekin lehiatuz.

Aunque las empresas que gestionan estos residuos son mayoritariamente de la Comunidad Autónoma del País Vasco, existe un 47% de residuos fotográficos gestionados por empresas foráneas (231 Tm), que principalmente recuperan metales a partir de estos residuos, en competición con empresas vascas que también realizan estas operaciones.



45. irudia. EHK 09 kategoriako hondakinei aplikatutako kudeaketa.
Figura 45. Gestión aplicada a los residuos de la categoría CER 09.



46. irudia. E.A.E.ko eta E.A.E.tik kanpoko enpresek kudeatutako EHK 09 kategoriari dagozkion hondakinen portzentajeak..
Figura 46. Proporción de los residuos de la categoría CER 09 gestionados por empresas de la C.A.P.V. y por empresas de fuera de la C.A.P.V.

4.8.2 1994-1998 epeko bilakaera

Nabarmen jaitsi da aspaldian (3.759 tona gutxiago) argazkigintzako hondakinen sorkuntza, eta badu horrek bere zergatia: argazkigintzako produktu kimikoen kontsumoaz 1994an egindako aurreikuspenak baikorregiak izan ziren.

Belgikako Walonia lurraldean 1995ean eginiko ikerlan baten arabera (Waloniako Hondakinen Kudeaketa Plana, 2010. urteari begira) 3.320.000 lagunek 2.200 tona argazkigintza-produktuko hondakin sortzen dute, eta horietarik 735 tona biltzen dira, hau da, % 33.

Datu horien Euskal Autonomia Erkidegoko 2.100.000 herritarretarako estrapolazioa eginenez, hona emaitzak: batezbesteko hondakin-ekoizpena 1.392 tonakoa izango litzateke, eta horietarik 491 tona (%35) arituko lirateke kudeatzen.

Gogoeta horrek egiaztatu egiten du 1994an egindako balioespena handiegia izan zela eta Euskal Autonomia Erkidegoan egindako argazkigintza-hondakinen kudeaketa erreferentziatzat har daitekeen Europako herrialde baten batezbestekoaren berdina dela.


4.8.2 Evolución 1994-1998

La sensible disminución de 3.759 Tm en la generación de residuos fotográficos se debe básicamente a que las estimaciones de consumo de productos químicos de la industria fotográfica realizadas en 1994 resultaron demasiado generosas.

Según un estudio realizado en 1995 por la Región de Valonia en Bélgica (Plan de Gestión de Residuos Valón con horizonte 2010), una población de 3.320.00 habitantes genera 2.200 Tm de productos fotográficos residuales, de los cuales se recogen 735 Tm, es decir, el 33%.

Realizando la extrapolación para los 2.100.000 habitantes de la Comunidad Autónoma del País Vasco, la producción media alcanzaría las 1.392 Tm, de las que se estarían gestionando 491 Tm, esto es, el 35%.

Esta reflexión confirma la idea de que la estimación que se realizó en 1994 fue demasiado elevada, y que la gestión de los residuos fotográficos realizada en la Comunidad Autónoma del País Vasco no difiere de la media de un país europeo que puede ser considerado de referencia.



47. irudia. EHK 09 kategoriari dagozkion hondakinen sorreraren bilakaera 1994-1998 epean. Bereizi egin dira 1994an kontuan hartutako hondakinak eta 1998an desklasifikatutakoak.

Figura 47. Evolución 1994-1998 de la generación de residuos de la categoría CER 09. Se diferencian los residuos considerados en 1994 y desclasificados en 1998.

4.9 EHK 10: PROZESU TERMIKOETAKO HONDAKIN EZ-ORGANIKOAK

4.9.1 Inbentarioaren emaitzak

Prozesu termikoetako hondakin ez-organikoak dira Euskal Autonomia Erkidegoan gehien sortzen direnak: 126.876 tona 1998an, guztizkoaren %44,3.

EHK 10 kategoriako horrenbesteko hondakin-ekoizpenak E.A.E.n badu bere zioa: galdaketa-prozesurik burutzen duten enpresen ugaritasuna, batez ere burdina, altzairua eta bestelako metal-aleaziorik (aluminioa, kobrea, zinka eta abar) egiten duten lantegiena. Hondakin ez-organikoen kopuru handiak sortzen dituzte aipatu prozesuek.

Honakook dira kategoría honetako hondakin nagusiak:

- **Altzairutegietako hautsak** (EHK 100207 kodea). Altzairua ekoizteko arku elektrikodun labeetan sortzen diren isurketak partikula solidoak atzemateko sistemetara bideratzen dira. Mahuka-iragazkietan gelditutako partikula horiei deitzen zaie "altzairutegietako hautsak", eta horien kopuru handiak ekoizten dira Euskal Autonomia Erkidegoan (82.380 tona 1998an, 10 kategoriako hondakinen %64,9 eta E.A.E.ko hondakin arriskutsuen guztizkoaren %28,8).

Metal astunen edukian datza hondakin honen arriskugarritasuna, eta burdina ez diren metalen (Zn, Pb, Cd, Cr, Ni eta Mn) kontzentrazio handia duten metal-oxidoak dira gehienak. Lehengaietan (hainbat jatorritako metal-txatarra) egon ohi dira aipatu metalak, edo fabrikazio-prozesuan eranstean dira (altzairu herdoilgaitzen ekoizpenean, adibidez).

- **Aluminioaren bigarren galdaketako zepak** (EHK 100308) dira bigarren hondakin ugariena (29.585 tona 1998an, %23,3). Aluminioaren ekoizpen-prozesuko lehenbiziko galdaketan geratutako txatarra eta zepak landuz sortuak dira bigarren galdaketarako erabiltzen diren zepak.
- Gutxiago (14.910 tona) sortzen dira bigarren galdaketako metal-hondar beltzak, kobregaldaketaren hautsak, errautsak, zepak, herdoilazalak, eta abar.

4.9 CER 10: RESIDUOS INORGÁNICOS DE PROCESOS TÉRMICOS

4.9.1 Resultados del inventario

Los residuos inorgánicos de procesos térmicos son los residuos peligrosos que en mayor abundancia se generan en la Comunidad Autónoma del País Vasco, concretamente 126.876 Tm en 1998, nada menos que un 44,3% del total.

Los motivos por los cuales se genera esta gran cantidad de residuos de la categoría CER 10 hay que buscarlos en la amplia implantación de empresas con procesos de fundición de metales en el País Vasco, fundamentalmente dedicados a la producción de hierro, acero y otras aleaciones metálicas (aluminio, cobre, cinc, etc.), que generan residuos inorgánicos en grandes cantidades.

Los residuos más importantes en esta categoría son los siguientes:

- **Polvos de acería**, codificados con el CER 100207. Las emisiones que se producen en los hornos de arco eléctrico para la producción de acero son canalizados hasta sistemas de captación de partículas sólidas. Estas partículas retenidas en los filtros de mangas son los llamados polvos de acería, los cuales se producen en grandes cantidades, en concreto 82.380 Tm en 1998, un 64,9% de los residuos de la categoría 10, y un 28,8% del total de los residuos peligrosos del País Vasco.

La peligrosidad de este residuo viene dada por su contenido en metales pesados, siendo la mayor parte óxidos metálicos con una elevada concentración de metales no férricos (Zn, Pb, Cd, Cr, Ni y Mn). Estos metales se encuentran originalmente en la materia prima (chatarra metálica de diversos orígenes), o son añadidos en el propio proceso de fabricación, como es el caso de la producción de aceros inoxidables.


- Con 29.585 Tm generadas en 1998 (23,3%), el segundo residuo más abundante son las **escorias de la segunda fusión del aluminio** (CER 100308), que se generan en el proceso de producción de aluminio a partir de chatarras y escorias de la primera fusión.
- En menor medida (14.910 Tm), se generan **granzas negras de segunda fusión, polvos de fundición de cobre, cenizas, escorias, cascari-las, etc.**

20. taula. EHK 10 kategoriari dagozkion 1998ko Hondakin Arriskutsuen Inbentarioaren emaitzak, eta 1994-1998 epeari dagokion bilakaera. Datuak urteko tonatan daude adierazita.

Tabla 20. Resultados del Inventario de Residuos Peligrosos 1998 para la categoría CER 10, y evolución 1994-1998. Datos en Tm/año.

EHK CER	94ko deskribapena Descripción 94	98ko deskribapena Descripción 98	94ko t Tm. 94	98ko t Tm. 98	98 - 94
100101	Labe-hondoko errautsak Cenizas de fondo de horno	Etxeetako errautsak Cenizas de hogar	0	18	18
100104	Fuel-oliozko errauts hegalariaik Cenizas volantes de fuel	Fuel-oliozko errauts hegalariaik Cenizas volantes de fuel	0	18	18
100106	Gasen tratamenduko beste zenbait hondakin solido Otros residuos sólidos del tratamiento de gases	Gasen tratamenduko beste zenbait hondakin solido Otros residuos sólidos del tratamiento de gases	0	27	27
1001	Zentral elektrikoetako eta beste zenbait errekuntza-instalaziotako hondakinak (19. kategoriakoak izan ezik) Residuos de centrales eléctricas y otras plantas de combustión (excepto la categoría 19.)		0	63	63
100202	Tratatu gabeko zepak Escorias no tratadas	Tratatu gabeko zepak Escorias no tratadas	0	417	417
100203	Gasen tratamenduko hondakin solidoak Residuos sólidos del tratamiento de gases		62.920	0	-62.920
100205	Beste zenbait lohi Otros lodos	Beste zenbait lohi Otros lodos	0	277	277
100207		Substantzia arriskutsuak dituzten arku elektrikoak labeetako gasen tratamenduko hondakin solidoak Residuos sólidos del tratamiento de gases de hornos de arco eléctrico que contienen sustancias peligrosas	0	82.380	82.380
100209		Burdinaren eta altzairuaren beste zenbait prozesutako gasen tratamenduko hondakin solidoak Residuos sólidos del tratamiento de gases de otros procesos de hierro y acero	0	1.086	1.086
100210		Ijezketa-geruza Cascarilla de laminación	0	67	67
100211		Hozteko uraren tratamenduko hondakinak, olioak dituztenak Residuos del tratamiento de agua de refrigeración que contienen aceites	0	3	3
1002	Burdingintzako eta altzairugintzako hondakinak Residuos de la industria del hierro y acero		62.920	84.230	21.310
100304	Lehen galdaketako zepak/grantza zuriak Escorias - granzas blancas de primera fusión	Lehen galdaketako zepak/grantza zuriak Escorias-granzas blancas de primera fusión	4.159	0	-4.159
100305	Alumina-hautsa Polvo de alúmina	Alumina-hautsa Polvo de alúmina	0	5	5
100308	Bigarren galdaketako gatz-zepak Escorias de sal de segunda fusión	Bigarren galdaketako gatz-zepak Escorias salinas de segunda fusión	37.055	29.585	-7.470
100309	Bigarren galdaketako grantza beltzak Granzas negras de segunda fusión	Bigarren galdaketako grantza beltzak Granzas negras de segunda fusión	0	3.798	3.798
100313	Gasen tratamenduko hondakin solidoak Residuos sólidos procedentes del tratamiento de gases	Gasen tratamenduko hondakin solidoak Residuos sólidos procedentes del tratamiento de gases	0	1.712	1.712
1003	Aluminioaren termometalurgiako hondakinak Residuos de la termometalurgia del aluminio		41.214	35.100	-6.114
100501	Zepak (lehen eta bigarren galdaketa) Escorias (primera y segunda fusión)	Zepak (lehen eta bigarren galdaketa) Escorias (primera y segunda fusión)	0	545	545
100502	Grantzak eta aparrak (lehen eta bigarren galdaketa) Granzas y espumas (primera y segunda fusión)	Grantzak eta aparrak (lehen eta bigarren galdaketa) Granzas y espumas (primera y segunda fusión)	0	1.624	1.624
100505	Gasen tratamenduko hondakin solidoak Residuos sólidos del tratamiento de gases	Gasen tratamenduko hondakin solidoak Residuos sólidos del tratamiento de gases	0	1.202	1.202
100599	Beste kategoria batean zehaztu gabeko hondakinak Residuos no especificados en otra categoría	Beste kategoria batean zehaztu gabeko hondakinak Residuos no especificados en otra categoría	0	53	53
1005	Zinkaren termometalurgiako hondakinak Residuos de la termometalurgia del zinc		0	3.424	3.424
100606	Gasen tratamenduko hondakin solidoak Residuos sólidos del tratamiento de gases	Gasen tratamenduko hondakin solidoak Residuos sólidos del tratamiento de gases	0	3.943	3.943
100607	Gasen tratamenduko lohiak Lodos del tratamiento de gases	Gasen tratamenduko lohiak Lodos del tratamiento de gases	0	0	0


EHK CER	94ko deskribapena Descripción 94	98ko deskribapena Descripción 98	94ko t Tm. 94	98ko t Tm. 98	98 - 94
1006	Kobrearen termometalurgiako hondakinak <i>Residuos de la termometalurgia del cobre</i>		0	3.943	3.943
101001	Estekatzaille organikoak dituzten koladarik gabeko galdaketako arrak eta moldeak <i>Machos y moldes de fundición que contienen ligantes orgánicos sin colada</i>	Estekatzaille organikoak dituzten koladarik gabeko galdaketako arrak eta moldeak <i>Machos y moldes de fundición que contienen ligantes orgánicos sin colada</i>	0	12	12
1010	Burdinazkoak ez diren piezen galdaketako hondakinak <i>Residuos de la fundición de piezas no férreas</i>		0	12	12
101199	Beste kategorian batean zehaztu gabeko hondakinak <i>Residuos no especificados en otra categoría</i>	Beste kategorian batean zehaztu gabeko hondakinak <i>Residuos no especificados en otra categoría</i>	0	101	101
1011	Beiraren eta bere eratorrien fabrikazioko hondakinak <i>Residuos de la fabricación del vidrio y sus derivados</i>		0	101	101
10	Prozesu termikoetako hondakin ez-organikoak <i>Residuos inorgánicos de procesos térmicos</i>		104.134	126.876	22.742



48. irudia. EHK 10 kategoriari dagokion sortutako hondakin-kopurua.
Figura 48. Cantidades de residuos generadas de la categoría CER 10.

Prozesu termikoetako hondakin ez-organikoen kudeaketa geldotze-tratamendu fisiko-kimikoz hasi ohi da normalean, eta horren ondoren zabartegira eramaten dira. 83.415 tonari (%65,7ari) aplikatzen zaie kudeaketa-sistema hori.

La gestión de los residuos inorgánicos de procesos térmicos pasa mayoritariamente por un tratamiento fisicoquímico de inertización, tras el cual los residuos se depositan en vertedero. Este tipo de gestión de aplica a 83.415 Tm (65,7%).



49. irudia. EHK 10 kategoriako hondakinei aplikatutako kudeaketa.
Figura 49. Gestión aplicada a los residuos de la categoría CER 10.

Hondakinok metal dezente daukatenez, nahiko jarduera ohikoa da metal horien edo beste materia ez-organiko batzuen berreskuratzea. Guztira 43.360 tona birziklatzen dira, guztizkoaren % 34,2.

Kudeatzaile bakarra arduratzen da aluminioaren bigarren galdaketako zepa guztiez, horietarik gatz urtugarriak (KCl, NaCl) eta hainbat metal berreskuratuz.

Bizkaian daude eta (egon izan dira aspalditik) sektore honetako enpresa gehienak, Ibaizabalgo itsasadarraren ibar ezkerrean batik bat: Sestaon, Portugaleten, Barakaldon... Herri horietan jarri ziren XIX. mendearen erdialdetik aurrera hainbat galdaketa-enpresa handi, inguruko mendietatik (Trianotik) ateratzen zen burdin meua lehengaitzat erabiltzen zutenak.

Sektore honek krisi gogorak pairatu izan ditu (1970 eta 80ko hamarkadetan batez ere), eta horren ondorioz Ibar Ezkerreko hainbat enpresa itxi edo birmoldatu behar izan dira; hala eta guztiz ere Bizkaian dago alor honetako produkzio gehiena. Eta sektoreak sortzen dituen hondakin-kopuruan ere nabaritzen da hori.

Dados los contenidos en metales de este tipo de residuos, es práctica bastante extendida también la recuperación de metales o de otras materias inorgánicas. En su conjunto, 43.360 Tm se destinan a reciclaje, lo que supone un 34,2% del total.


Un solo gestor se encarga de la totalidad de las escorias de la segunda fusión del aluminio, recuperando de las mismas las sales fundentes (KCl, NaCl) y diversos metales.

La implantación de empresas de este sector ha sido históricamente predominante en Bizkaia, fundamentalmente en la margen izquierda de la ría del Nervión, en municipios como Sestao, Portugalete o Barakaldo, en los que, desde mediados del siglo XIX, se asentaron grandes empresas de fundición, que utilizaban el mineral de hierro extraído de los cercanos montes de Triano como materia prima.

A pesar de la gran crisis que el sector sufrió sobre todo en las décadas de los 70 y los 80, y que obligó a cerrar o a reconvertirse a numerosas empresas de la margen izquierda, el grueso de la producción en este sector sigue asentándose en Bizkaia, lo cual también se refleja en los resultados obtenidos respecto a los residuos que el sector genera.

Prozesu termikoetako hondakin ez-organikoen %63 (79.901 tona) Bizkaian sortzen da; Gipuzkoan 37.536 tona, eta Araban, azkenik, 9.438 tona.


El 63% de los residuos inorgánicos de procesos térmicos se genera en Bizkaia (79.901 Tm), seguido de Gipuzkoa (37.536 Tm) y Araba (9.438 Tm).



50 irudia. EHK 10 kategoriariko hondakinaren banaketa Lurralde Historikoko.
Figura 50. Distribución de los residuos de la categoría CER 10 por Territorios Históricos.

Gehienbat Euskal Autonomia Erkidegoko enpresen esku jartzen da hondakin horien kudeaketa (88.287 tona, %69,6); E.A.E.tik kanpoko enpresek, berriz, hondakinaren %30,4 (38.589 tona) kudeatzen dituzte, eta horietatik gehienak (29.585 tona) aluminioaren bigarren galdaketako zepen kudeaketari (birziklapenerako) dagozkio.

La gestión de estos residuos generalmente se encomienda a empresas de la Comunidad Autónoma del País Vasco, que gestionan 88.287 Tm (69,6%), frente a 38.589 Tm gestionadas por empresas foráneas (30,4%), de las cuales la mayor parte (29.585 Tm) corresponden a la gestión de las escorias de segunda fusión del aluminio para su reciclaje.



51. irudia. E.A.E.ko eta E.A.E.tik kanpoko enpresek kudeatutako EHK 10 kategoriariko hondakinaren portzentajeak.
Figura 51. Proporción de los residuos de la categoría CER 10 gestionados por empresas de la C.A.P.V. y por empresas de fuera de la C.A.P.V.

4.9.2 1994-1998 epeko bilakaera

Aluminio, altzairu eta burdin industriak sortutako hondakinak bakarrik (1002 eta 1003 multzoak) hartu ziren kontuan 1994ko Inbentarioan, eta guztira 104.134 tona zenbatu ziren.

Gora egin du azkenaldian kopuruak –urteko 119.330 tonaraino–, altzairutegietako hautsen kudeaketaren hazkundeagatik batez ere. Izan ere, 100207 eta 100209 multzoetan sartzen dira gaur egun hauts horiek, 100203 kodea kendu eta gero.

Honenbestez, 20.546 tona altzairu-hauts gehiago sortu ziren 1998an, martxan diren altzairutegietako ekoizpenak ere gora egin baitzuen sasoi berean. Horrez gain, beste enpresa bat ere hasi zen lanean sektore honetan.

Bestetik, 7.825 tonako jaitsiera izan da aluminioaren termometalurgiako zepa eta grantzen kudeaketan (1994ko 41.424 tonetatik 1998ko 33.388etaraino), ekoizpenaren gorabeherek eurek eragina.

Gainerakoan, egiaztatu egin da honako sektore hauek sortutako 7.545 tona hondakin arrisku-tsua (aurreko Inbentarioan sartu gabeak) egokiro kudeatu direla:

- 1001: Zentral elektrikoek eta errekuntza-instalazioek.
- 1005: Zinkaren termometalurgiak.
- 1006: Kobreaken termometalurgiak.
- 1010: Burdinazkoak ez diren piezen galdaketak.
- 1011: Beiraren eta bere eratorrien fabrikazioak.

4.9.2 Evolución 1994-1998

En el Inventario de 1994 se tuvieron en cuenta únicamente los residuos generados en las industrias del aluminio, el hierro y el acero, grupos 1002 y 1003, que alcanzaban un total de 104.134 Tm.


En la actualidad este flujo ha aumentado hasta un total de 119.330 Tm anuales, que puede explicarse básicamente por el aumento en la gestión de los polvos de acería, ahora recogidos en los grupos 100207 y 100209 al desaparecer el código 100203.

Así, en 1998 se han generado 20.546 Tm más de polvos de acería, debido al auge generalizado de la producción correspondiente a las acerías existentes, así como por la aparición de una nueva empresa en el sector.

Por otro lado, se detecta un descenso de 7.825 Tm, (de 41.214 en 1994 hasta 33.388 Tm en el 98), en la gestión de escorias y granzas procedentes de la termometalurgia del aluminio, que pueden explicarse por los movimientos propios de la producción.

Por lo demás, se ha verificado la correcta gestión de 7.545 Tm de residuos peligrosos correspondientes a los siguientes sectores, no contemplados en el Inventario anterior:

- 1001: Centrales eléctricas y plantas de combustión.*
- 1005: Termometalurgia del zinc.*
- 1006: Termometalurgia del cobre.*
- 1010: Fundición de piezas no férreas.*
- 1011: Fabricación del vidrio y sus derivados.*



52. irudia. EHK 10 kategoriari dagozkion hondakinen sorreraren bilakaera 1994-1998 epean. Bereizi egin dira 1994an kontuan hartutako hondakinak eta 1998an desklasifikatutakoak.

Figura 52. Evolución 1994-1998 de la generación de residuos de la categoría CER 10. Se diferencian los residuos considerados en 1994 y desclasificados en 1998.

4.10 EHK 11: METALEN TRATAMENDU ETA GAINESTALDURAKO HONDAKINAK

4.10.1 Inbentarioaren emaitzak

Garrantzi handia du Euskal Autonomia Erkidegoan metalen transformazio eta gainazal-akaberako sektoreak, eta enpresa txiki zein ertainak aritzen dira gehienbat zeregin horietan. Oso sakabanatuta dago sektorea, hiru Lurralde Historikoetan barreiatuta, baina baditu, halaber, tamaina handiagoko ijezketa eta trefilaketa-enpresak, baita itxipeko instalazioak ere (fosfatazioak, adibidez), hondakin-kopuru handiak sortzen dituenak.

Hauxe da, hain justu, gure Autonomia Erkidegoan hondakin gehien sortzen dutenetako sektorea.

Desugertzea (gehigarri azidoen bainuen bitartez oxidoak eta bestelako partikulak kentzea) edota **fosfatazioa** (azido fosforiko eta Fe edo Zn bainuen bitartez gainazala prestatzea), horiek dira kategorian honetako hondakin-sortzailer nagusiak. Aipatu bi prozesu horiek metalezko piezen gainazala prestatu egiten dute, gerora azaleko akabera eman ahal izateko.

Horien segidan datoz gainazal-akabera prozesuen (anodizazioa, kromoztatzea eta abar) disoluzio agortuak, bai apaintzeko bai piezen gainazal-ezaugarri fisiko-kimikoak hobetzeko erabiltzen direnak (korrosiotik hobeto babesteko, adibidez). **Tratamendu elektrolitikoak** dira atal honetan gehien nabarmentzen direnak, oso erabiliak baitira.

Kategoria honetan sartzen dira, azkenik, **burdinarenak ez beste hidrometalurgiako** (prozesu kimikoen bidez metalak eskuratzea) hondakinak eta **tenplaketa-prozesuen** lohiak eta gatzak (horien bitartez ematen zaizkie metalezko piezei nekearen aurkako erresistentzia eta ezaugarri mekanikoak).

Disoluzio edo nahastea oso heterogeneoak izan ohi dira, eta toxikotasuna honako faktore hauek datorkie: azidotasun edo alkalinitasunetik, metal astunen edukitik edo beste konposatu toxiko batzuetatik (zianuro-gatzetatik, esate batera).

Kategoria honetako hiru hondakin-mota nagusi daude, edozein dutelarik ere jatorria: garbiketareta-akabera-akaberakoak –normalean ubide edo biltegira isurtzen dira, aldeztuak tratatuta, osagai poluigarriko edukia txikia baitute–, bainu agortuak

4.10 CER 11: RESIDUOS DEL TRATAMIENTO Y REVESTIMIENTO DE METALES

4.10.1 Resultados del inventario

El sector de la transformación y acabado superficial de metales tiene una gran implantación en la Comunidad Autónoma del País Vasco, generalmente en pequeñas y medianas empresas que constituyen un sector muy atomizado y distribuido en los tres Territorios Históricos, pero también con la presencia de empresas de laminación y trefilado de mayor tamaño, así como instalaciones cautivas como las de fosfatación, que producen cantidades notables de residuos.

Este sector es uno de los principales generadores de residuos peligrosos en nuestra Comunidad.

*Los tratamientos como el **decapado** (eliminación de óxidos y otras partículas mediante baños ácidos con aditivos), o el **fosfatado** (preparación de la superficie mediante baños de ácido fosfórico y Fe o Zn), por medio de los cuales se prepara la superficie de las piezas metálicas para posteriormente aplicarles un acabado superficial, son los principales generadores de residuos en esta categoría.*

*Le siguen a continuación las soluciones agotadas de los propios procesos de acabado superficial (anodizado, cromado, etc.), que se aplican bien con fines decorativos o bien para mejorar las propiedades físicoquímicas de la superficie de las piezas, como puede ser una mayor protección frente a la corrosión. Dentro de este tipo de tratamientos destacan por su amplia implantación los **tratamientos electrolíticos**.*

*Por último, se incluyen en esta categoría los residuos de la **hidrometalurgia no férrea** (obtención de metales por procesos químicos) y los lodos y sales de **procesos de temple**, por los cuales se dota a las piezas metálicas de resistencia a la fatiga y propiedades mecánicas.*

Se trata de soluciones o mezclas muy heterogéneas cuya toxicidad puede provenir de su acidez o alcalinidad, su contenido en metales pesados, o de su contenido en otros compuestos tóxicos como sales de cianuro.

Básicamente existen tres tipos fundamentales de residuos de esta categoría, sea cual sea su origen, como son las aguas de lavado, que generalmente se eliminan como vertido a cauce o colector previo tratamiento, dados sus bajos

eta lohiak. Azken biak hondakin arriskutsu gisara kudeatzen dira.

contenidos en compuestos contaminantes, los baños agotados y los lodos, que se gestionan como residuos peligrosos.


21. taula. EHK 11 kategoriari dagozkion 1998ko Hondakin Arriskutsuen Inbentarioaren emaitzak, eta 1994-1998 epeari dagozkion bilakaera. Datuak urteko tonatan daude adierazita.

Tabla 21. Resultados del Inventario de Residuos Peligrosos 1998 para la categoría CER 11, y evolución 1994-1998. Datos en Tm/año.

EHK CER	94ko deskribapena Descripción 94	98ko deskribapena Descripción 98	94ko t Tm. 94	98ko t Tm. 98	98 - 94
110101	Kromoa ez beste metal astun batzuk dituzten zianurodun hondakinak (alkalinoak) <i>Residuos cianurados (alcalinos) que contienen metales pesados distintos al cromo</i>	Kromoa ez beste metal astun batzuk dituzten zianurodun hondakinak (alkalinoak) <i>Residuos cianurados (alcalinos) que contienen metales pesados distintos al cromo</i>	398	81	-317
110103	Kromoa duten zianurorik gabeko hondakinak <i>Residuos sin cianuro que contienen cromo</i>	Kromoa duten zianurorik gabeko hondakinak <i>Residuos sin cianuro que contienen cromo</i>	3.660	269	-3.391
110104	Kromorik ez duten zianurorik gabeko hondakinak <i>Residuos sin cianuro que no contienen cromo</i>	Kromorik ez duten zianurorik gabeko hondakinak <i>Residuos sin cianuro que no contienen cromo</i>	4.768	49	-4.719
110105	Desugerketa-disoluzio azidoak <i>Soluciones ácidas de decapado</i>	Desugerketa-disoluzio azidoak <i>Soluciones ácidas de decapado</i>	64.200	62.036	-2.164
110106	Beste kategorian batean zehaztu gabeko azidoak <i>Ácidos no especificados en otra categoría</i>	Beste kategorian batean zehaztu gabeko azidoak <i>Ácidos no especificados en otra categoría</i>	0	9.303	9.303
110107	Beste kategorian batean zehaztu gabeko alkaliak <i>Alcalis no especificados en otra categoría</i>	Beste kategorian batean zehaztu gabeko alkaliak <i>Alcalis no especificados en otra categoría</i>	12.850	7.983	-4.867
110108	Fosfatazio-lohiak <i>Lodos de fosfatación</i>	Fosfatazio-lohiak <i>Lodos de fosfatación</i>	3.800	1.737	-2.063
110201	Kobrearen hidrometalurgiako lohiak <i>Lodos de la hidrometalurgia del cobre</i>	Kobrearen hidrometalurgiako lohiak <i>Lodos de la hidrometalurgia del cobre</i>	2.800	0	-2.800
110202	Zinkaren hidrometalurgiako lohiak (jarosita eta goethita barne) <i>Lodos de la hidrometalurgia del zinc (incluida jarosita y goethita)</i>	Zinkaren hidrometalurgiako lohiak (jarosita eta goethita barne) <i>Lodos de la hidrometalurgia del zinc (incluida jarosita, goethita)</i>	0	44	44
110301	Zianuroa duten hondakinak <i>Residuos que contienen cianuro</i>	Zianuroa duten hondakinak <i>Residuos que contienen cianuro</i>	39	38	-1
110302	Beste zenbait hondakin <i>Otros residuos</i>	Beste zenbait hondakin <i>Otros residuos</i>	76	35	-41
11	Metalen tratamendu eta gainestaldurako hondakin ez-organikoak, metalak dituztenak; burdinazkoa ez den hidrometalurgia <i>Residuos inorgánicos que contienen metales procedentes del tratamiento y revestimiento de metales; hidrometalurgia no férrea</i>		92.591	81.574	-11.016

Ikuspegi orokorretik begiratuta, EHK 11ri dagozkion hondakinak dira ugariak, galdaketa-prozesuetako hondakin ez-organikoen (10 kategoria) atzetik: 81.574 tona sortu ziren 1998an, Euskal Autonomia Erkidegoko hondakin arriskutsuen guztizkoaren %28,5.

Desde una perspectiva global, los residuos de esta categoría CER 11 son los más abundantes después de los residuos inorgánicos de procesos de fundición (categoría 10), generándose 81.574 Tm en 1998, un 28,5% del total de residuos peligrosos de la Comunidad Autónoma del País Vasco.



53. irudia. EHK 11 kategoriari dagokion sortutako hondakin-kopurua.
Figura 53. Cantidades de residuos generadas de la categoría CER 11.


Zabortegira eramatea izan ohi da hondakin hauen ezabaketa-sistema ohikoena (54.803 tona, %67,2) aldez aurretik tratamendu fisiko-kimikopean edukita (neutralizazioa eta metalen hauspeatzea normalean).

El destino más común en este tipo de residuos es la eliminación en vertedero (54.803 Tm, un 67,2%), con una operación previa de tratamiento fisicoquímico (generalmente neutralización y precipitación de metales).

La recuperación de compuestos inorgánicos a partir de estos residuos es también significativa (32,7%), con 26.682 Tm a las que se aplican estas técnicas, de las cuales la transformación del cloruro ferroso de los baños agotados en un coagulante (cloruro férrico) representa la práctica de reciclado más importante (25.191 Tm).

Errausketa edo energi aprobetxamendua ere aplikatu ohi zaie batzuetan, baina oso gutxitan.

La incineración o el aprovechamiento energético se aplican en algunos casos, pero muy escasamente.



54. irudia. EHK 11 kategoriako hondakinei aplikatutako kudeaketa.
Figura 54. Gestión aplicada a los residuos de la categoría CER 11.

Hondakin hauetako %84 E.A.E.ko enpresek kudeatu ohi dituzte, eta badute gaitasunik, bai birziklapen- eta bai ezabapen-tratamenduak egiteko.

Bizkaian sortzen da EHK 11 kategoriako hondakin gehien, eta atzetik datoz Araba eta Gipuzkoa. Harrigarria lurdikeen arren (Gipuzkoan metalurgia-tradizio handia baitago) Araban (23.975 tona) Gipuzkoan (11.004 tona) baino hondakin-kopuru handiagoa sortzen da.

Alabaina, Arabakoa baino sakabanatuagoa dago Gipuzkoako metalurgia, eta gehiago jarduten du mekanizazioan gainazalen tratamenduan baino. Araban, bestalde, badira tratamendu hori tamaina handiko piezei edo bobina ijetziei egiten dieten enpresak; ondorioz, erabilitako bainu-kopuru handiak sortu ohi dituzte.


Kontuan izatekoa da, halaber, aspaldi honetan Gipuzkoako (Deba Goieneko, batez ere) zenbait enpresak Araba aldera jo izana, industriarako lurzorua aiseago eta merkeago aurkitzen baita Arabako lurretan.

Un 84% de los residuos de esta categoría son gestionados por gestores vascos, los cuales tienen capacidad para realizar tratamientos tanto de reciclaje como de eliminación con este tipo de residuos.

La mayor parte de los residuos de la categoría CER 11 se generan en Bizkaia, seguido de Araba y Gipuzkoa. Se genera una mayor cantidad de residuos en Araba (23.975 Tm) que en Gipuzkoa (11.004 Tm), lo cual puede parecer sorprendente dada la mayor tradición metalúrgica de Gipuzkoa.


Sin embargo, la metalurgia de Gipuzkoa se encuentra más atomizada que en Araba, y está más enfocada al mecanizado que al tratamiento superficial. En Araba, además, existen empresas en las que se aplican este tipo de tratamientos a piezas de grandes dimensiones o a bobinas laminadas, por lo que se generan grandes cantidades de baños usados.

También hay que tener en cuenta que se ha ido produciendo en las últimas décadas un traslado de empresas de Gipuzkoa, sobre todo de la comarca del Alto Deba, hacia tierras alavesas, atraídas por la mayor disponibilidad de suelo industrial.



55. irudia. E.A.E.ko eta E.A.E.tik kanpoko enpresek kudeatutako EHK 11 kategoriari dagozkion hondakinen portzentajeak.

Figura 55. Proporción de los residuos de la categoría CER 11 gestionados por empresas de la C.A.P.V. y por empresas de fuera de la C.A.P.V.



56 irudia. EHK 11 kategoriari dagozkion hondakinen banaketa Lurralde Historikoka.
Figura 56. Distribución de los residuos de la categoría CER 11 por Territorios Históricos.

4.10.2 1994-1998 epeko bilakaera

Metal astunak dituzten hondakinen (110101, 110103 eta 110104 multzoak) kudeaketan 8.427 tonako jaitsiera antzeman da. Ekoizpen-instalazioetan bertan araztegiak jarri izanak eragin du murrizketa, horietako iragazpen-opilak EHK 19 kategoria sailkatzen baitira orain. Pixkana-pixkana minimizazio-neurriak ezarri izanak ere izan du eraginik beherako joera horretan.

Baliagarri dira argudio horiek alkaliei dagokienez ere, 4.867 tona/urteko jaitsiera izan baitute, edo fosfatazio-lohiei dagokienez. 1994an 3.100 tona fosfatazio-bainu zeuden deitura horren pean.

Aitzitik, 7.139 tona egin du gora kudeatutako erabilitako azidoen kopuruak.

Azkenik, kobrearen hidrometalurgiako lohiek 1006 kodean (“Kobrearen termometalurgiako hondakinak”) jarri dira.


4.10.2 Evolución 1994-1998

Se detecta un descenso de 8.427 Tm en la gestión de residuos con metales pesados, (grupos 110101, 110103 y 110104), debido fundamentalmente a la instalación de depuradoras en las propias plantas productoras, cuyas tortas de filtración se han contabilizado en la categoría CER 19, así como a la aplicación progresiva de medidas de minimización.

Estos mismos argumentos pueden aplicarse para el caso de los álcalis, que presentan un descenso de 4.867 Tm/año, o los lodos de fosfatación, que en 1994 incluían también 3.100 Tm de baños de fosfatado bajo esta denominación.

Por su parte, aumenta en 7.139 Tm la gestión de ácidos empleados.

Por último, los lodos de la hidrometalurgia del cobre han sido consignados en el código 1006, “Residuos de la termometalurgia del cobre”.



57. irudia. EHK 11 kategoriari dagozkion hondakinen sorreraren bilakaera 1994-1998 epean. Berezi egin dira 1994an kontuan hartutako hondakinak eta 1998an desklasifikatutakoak.

Figura 57. Evolución 1994-1998 de la generación de residuos de la categoría CER 11. Se diferencian los residuos considerados en 1994 y desclasificados en 1998.

4.11 EHK 12: METALEN ETA PLASTIKOEN MOLDAKETAKO HONDAKINAK

4.11.1 Inbentarioaren emaitzak

Ebaketa-olio agortuak dira gehienbat EHK 12 kategoriako hondakinak (taladrina deritzenak, alegia), baita metalen mekanizazio-prozesuetan sortzen diren beste hondakin batzuk ere: forjaketan, trefilaketan, prentsaketan, torneaketan, fresaketan eta abarretan, guztiak ere oso jardue-ra hedatuak euskal industri egituraketan.

4.11 CER 12: RESIDUOS DEL MOLDEADO DE METALES Y PLÁSTICOS

4.11.1 Resultados del inventario

Los residuos de la categoría CER 12 consisten fundamentalmente en aceites de corte agotados, las llamadas taladrinas, y otros residuos que se generan en procesos de mecanizado del metal, tales como forja, trefilado, prensado, torneado, fresado, etc., tan extendidos en el tejido industrial vasco.

22. taula. EHK 12 kategoriari dagozkion 1998ko Hondakin Arriskutsuen Inbentarioaren emaitzak, eta 1994-1998 epeari dagokion bilakaera. Datuak urteko tonatan daude adierazita.

Tabla 22. Resultados del Inventario de Residuos Peligrosos 1998

EHK CER	94ko deskribapena Descripción 94	98ko deskribapena Descripción 98	94ko t Tm. 94	98ko t Tm. 98	98 - 94
120101	Burdinazko metalen karraka-hautsak k eta txirbila <i>Limaduras y virutas de metales férreos</i>	Burdinazko metalen karraka-hautsak eta txirbilak <i>Limaduras y virutas de metales férreos</i>	0	57	57
120104	Burdinazkoak ez diren metalen beste zenbait partikula <i>Otras partículas de metales no férreos</i>	Burdinazkoak ez diren metalen beste zenbait partikula <i>Otras partículas de metales no férreos</i>	0	6	6
120106	Halogenoak dituzten makinetako olio erabiliak (emultsionatu gabeak) <i>Aceites usados de maquinaria que contienen halógenos (no emulsionados)</i>	Halogenoak dituzten mekanizazioko olio-hondakinak (emultsionatu gabeak) <i>Residuos de aceites de mecanizado que contienen halógenos (no emulsionados)</i>	0	66	66
120107	Halogenorik gabeko makinetako olio erabiliak (emultsionatu gabeak) <i>Aceites usados de maquinaria sin halógenos (no emulsionados)</i>	Halogenorik ez duten mekanizazioko olio-hondakinak (emultsionatu gabeak) <i>Residuos de aceites de mecanizado sin halógenos (no emulsionados)</i>	0	1.813	1.813
120108	Halogenoak dituzten makinetako hondakin emultsionatuak <i>Residuos emulsionados de maquinaria que contienen halógenos</i>	Halogenoak dituzten mekanizazioko emultsioen hondakinak <i>Residuos de emulsiones de mecanizado que contienen halógenos</i>	0	32	32
120109	Halogenorik gabeko makinetako hondakin emultsionatuak <i>Residuos emulsionados de maquinaria sin halógenos</i>	Halogenorik ez duten mekanizazioko emultsioen hondakinak <i>Residuos de emulsiones de mecanizado sin halógenos</i>	69.425	10.646	-58.779
120110	Makinetako olio sintetikoak <i>Aceites sintéticos de maquinaria</i>	Mekanizazioko olio sintetikoak <i>Aceites sintéticos de mecanizado</i>	0	1	1
120111	Makinetako lohiak <i>Lodos de maquinaria</i>	Mekanizazioko lohiak <i>Lodos de mecanizado</i>	0	2.503	2.503
120112	Argizari eta gantz erabiliak <i>Ceras y grasas usadas</i>	Argizari eta gantz erabiliak <i>Ceras y grasas usadas</i>	0	75	75
120199	Beste kategoria batean zehaztu gabeko hondakinak <i>Residuos no especificados en otra categoría</i>	Beste kategoria batean zehaztu gabeko hondakinak <i>Residuos no especificados en otra categoría</i>	0	24	24
120301	Garbiketako likido urtsuak <i>Líquidos acuosos de limpieza</i>	Garbiketako likido urtsuak <i>Líquidos acuosos de limpieza</i>	0	287	287
12	Metalen eta plastikoaren moldaketako eta gainazalen tratamenduko hondakinak <i>Residuos del moldeado y tratamiento de superficie de metales y plásticos</i>		69.425	15.511	-53.914

Los residuos de la categoría CER 16 presentan un alto porcentaje de reciclaje (2.226 Tm, un 52,1%). Esto es debido a las altas proporciones de reciclaje de las pilas y acumuladores, así como los transformadores con PCB, cuya carcasa metálica se vende como chatarra.


La eliminación en vertedero es la siguiente opción más utilizada, con 1.988 Tm en el año 1998 (46,5%), siendo mayoritaria para lotes de productos fuera de especificación, gases y productos químicos en recipientes, los residuos de cisternas de transporte y almacenamiento y los catalizadores usados.

Energi balorizaziora bideratzen diren 62 tonak hidrokarburoen depositu-garbiketari dagozkion hondakinak dira.

Las 62 Tm destinadas a valorización energética corresponden a residuos de la limpieza de cisternas con hidrocarburos.




79. irudia. EHK 16 kategoriako hondakinei aplikatutako kudeaketa.
Figura 79. Gestión aplicada a los residuos de la categoría CER 16.



80. irudia. 16. kategoriako EHK bakoitzeko kudeaketa-sistemaren banaketa.
Figura 80. Distribución de los tipos de gestión para cada CER de la categoría 16.

Euskal Autonomia Erkidegoko enpresek kudeatzen dituzte EHK 16 kategoriako hondakin gehienak (3.307 tona, % 77,3), pilak, metagailuak eta deposituetako hondakinak batez ere.

Los residuos de la categoría CER 16 son gestionados mayoritariamente por empresas de la Comunidad Autónoma del País Vasco (3.307 Tm, un 77,3%), especialmente las pilas y acumuladores y los residuos de cisternas.



81. irudia. E.A.E.ko eta E.A.E.tik kanpoko enpresek kudeatutako EHK 16 kategoriari dagozkion hondakinen portzentajeak.

Figura 81. *Proporción de los residuos de la categoría CER 16 gestionados por empresas de la C.A.P.V. y por empresas de fuera de la C.A.P.V.*

4.15.2 1994-1998 epeko bilakaera

1994ko aurreikuspenak –baztertutako ekipoen sorkuntzari dagokionez– oso behetik ibili zirela egiaztatu digute datuek, kudeatutako kopurua kalkulaturakoa halako lau izan baita ia-ia. Bestalde, sendotu egin da hondakin hauek –transformadore elektrikoak bereziki– egokiro kudeatzeko ohitura.

Pila eta baterien kudeaketan ere antzeman da hazkunde nabarmenik, baita deposituetako garbiketako hondakinenean ere.


Argitu dezagun, azkenik, katalizatzaileen kudeaketan ustez izandako 104 tonako hazkundearen nondik norakoa: multzo berria da hori, eta hor biltzen dira 1994ko EHKn hainbat multzotan –sortzen zituen jarduera-sektorearen arabera– sakabanaturik zeuden hondakin guztiak.

4.15.2 Evolución 1994-1998

Los datos confirman que en 1994 se realizó una estimación a la baja de la generación de equipos desechados, ya que prácticamente se ha cuadruplicado la cantidad gestionada, aunque también se ha asentado la práctica de gestionar adecuadamente estos residuos, fundamentalmente los transformadores eléctricos.

Se detecta de igual manera un aumento muy significativo en la gestión de pilas y baterías, así como en la de residuos de limpieza de cisternas.

Por último, señalar que la variación de 104 Tm en la gestión de catalizadores no es real, ya que se trata de un grupo nuevo que centraliza la totalidad de los residuos de este tipo que en el CER de 1994 se encontraban repartidos entre los distintos grupos, en función del sector de actividad que los generaba.



82. irudia. EHK 16 kategoriariko hondakinaren sorreraren bilakaera 1994-1998 epean. Berezi egin dira 1994an kontuan hartutako hondakinak eta 1998an desklasifikatutakoak.

Figura 82. Evolución 1994-1998 de la generación de residuos de la categoría CER 16. Se diferencian los residuos considerados en 1994 y desclasificados en 1998.

4.16 EHK 17: ERAIKUNTZAKO ETA ERAISPENEN HONDAKINAK

4.16.1 Inbentarioaren emaitzak

Poluitutako lur eta eraikuntza-materialak biltzen ditu kategoría honek, eraikitako industri instalazio zaharretakoak gehienbat, betiere haien hondakin eta lurra orube horietan egitekoak diren jarduera urbanistikoei ekin aurretik aztertuak baldin badira.

Hondakin arriskutsuztat kudeatu beharrekoak dira bai lurzoru poluituak bai poluzioak kaltetutako eraikinen egiturak.

4.16 CER 17: RESIDUOS DE LA CONSTRUCCIÓN Y DEMOLICIÓN

4.16.1 Resultados del inventario

Se recogen en esta categoría suelos y materiales de construcción contaminados, generalmente provenientes de antiguas instalaciones industriales desmanteladas, cuyas ruinas y suelos han sido analizados con anterioridad a las actuaciones urbanísticas que en sus emplazamientos se vayan a abordar.

Tanto los suelos contaminados como las estructuras constructivas que se hayan detectado como afectadas por la contaminación deben ser gestionadas como residuos peligrosos.

27. taula. EHK 17 kategoriariko hondakin Arriskutsuen Inbentarioaren emaitzak, eta 1994-1998 epeari dagokion bilakaera. Datuak urteko tonatan daude adierazita.

Tabla 27. Resultados del Inventario de Residuos Peligrosos 1998 para la categoría CER 17, y evolución 1994-1998. Datos en Tm/año.

EHK CER	94ko deskribapena Descripción 94	98ko deskribapena Descripción 98	94ko t Tm. 94	98ko t Tm. 98	98 - 94
170503		Substantzia arriskutsuak dituzten lurra eta harriak (170501 kategoriarikoz izan ezik) Tierra y piedras que contienen sustancias peligrosas (excepto 170501)	0	433	433
170601	Amiantoa duten isolamendu-materialak Materiales de aislamiento que contienen amianto	Amiantoa duten isolamendu-materialak Materiales de aislamiento que contienen amianto	0	70	70
17	Eraikuntzako eta eraispeneko hondakinak (errepide-eraikuntzakoak barne) Residuos de la construcción y demolición (incluyendo construcción de carreteras)		0	503	503

Amiantodun eraikuntza-materialak ere kategoriatan sartzen dira. Material toxikoa da amianto –bere zuntz-egitura dela eta–, eta gogotik erabili zen eraikuntzan, isolatzaile gisara, aurreko hamarkadetan.


Ez dira Inbentariora honetan bildu eraikuntzako eta eraispenerako hondakin geldoak. Horiek dira, hain justu, Euskal Autonomia Erkidegoan gehien sortzen diren hondakinak, arriskutsuak baino bost bider kopuru handiagoa, gutxi gorabehera.

8. kapituluak –sortzen ari diren hondakinei eskainia– Europako Hondakin Katalogoaren (EHK) gaurkotzearen eraginpeko eraikuntza eta eraispenerako hondakin-multzoak aztertuko ditu. 2002ko urtarrilaren 1ean jarriko da indarrean EHK berria.

También se incluyen en esta categoría materiales constructivos que contengan amianto, material tóxico debido a la estructura de sus fibras, y que fue profusamente utilizado como aislante en la construcción en el pasado cercano.

No forman parte de este inventario los residuos inertes de construcción y demolición que constituyen el grupo de residuos que se genera en la Comunidad Autónoma del País Vasco en mayor cantidad, aproximadamente 5 veces más en peso que los residuos peligrosos.


El capítulo 8, dedicado a los residuos emergentes, analiza entre otras las corrientes de residuos de construcción y demolición que se verán afectadas por los cambios en la nueva actualización del Catálogo Europeo de Residuos (CER) que entrará en vigor el 1 de enero de 2002.



83. irudia. EHK 17 kategoriariko hondakin-kopurua.
Figura 83. Cantidades de residuos generadas de la categoría CER 17.

Bizkaian sortuak dira hondakin horietatik gehienak, eraikuntzako enpresa handi batean eta Ibaizabal ibaiaren ibar ezkerreko altzairutegi handi baten berritze-lanetan hain zuzen ere.

La mayor parte de estos residuos se han generado en Bizkaia, concretamente en una gran empresa de construcción y en las obras de remodelación de una gran planta de producción de acero en la margen izquierda del Nervión.



84. irudia. EHK 17 kategoriari dagozkion hondakinen banaketa Lurralde Historikoka.
Figura 84. Distribución de los residuos de la categoría CER 17 por Territorios Históricos.

Zabortegira eramatea –aldez aurretik tratamenduren bat aplikatuta– edo hondakin arrisku-tsuentzako zabortegiren batean (segurtasun-biltegia) ezabatzea, horiek dira hondakin hauei ezartzen zaizkien kudeatze-sistemak. Euskal Autonomia Erkidegokoak dira jarduera horiek burutzen dituzten kudeatzaile gehienak, eta kanporatzen den kopurua (35 tona, %7) segurtasun-biltegiara eramaten dena izaten da. Izan ere, ez dago Euskal Autonomia Erkidegoan horrelako instalaziorik.

La gestión que se aplica a estos residuos es la eliminación en vertedero, previo tratamiento, o la eliminación en un vertedero para residuos peligrosos (celda de seguridad). Los gestores que realizan estas operaciones son en su mayor parte empresas de la Comunidad Autónoma del País Vasco, correspondiendo las 35 Tm (7%) que han gestionado empresas foráneas a los residuos que se han destinado a celda de seguridad, por no existir unas instalaciones de estas características en la Comunidad Autónoma del País Vasco.



85. irudia. E.A.E.ko eta E.A.E.tik kanpoko enpresek kudeatutako EHK 17 kategoriari dagozkion hondakinen portzentajeak.
Figura 85. Proporción de los residuos de la categoría CER 17 gestionados por empresas de la C.A.P.V y por empresas de fuera de la C.A.P.V.

4.16.2 1994-1998 epeko bilakaera

Aurreko inbentarioan ez zen sartu honako multzo hau; ez dago, beraz, konparaziorik egiterik.

8. kapituluan –sortzen ari diren hondakinei eskainia– sakonago aztertuko ditugu eraikuntza eta eraispeneko hondakinak.

4.17 EHK 18: MEDIKUNTZA- ETA ALBAITARITZA-HONDAKINAK

4.17.1 Inbentarioaren emaitzak

Medikuntza- eta albaitaritzaz-hondakinak biltzen ditu EHK 18k, jardura mediko edo paramedikoen (ospitaleak, osasun-zentroak, laborategiak, eta abarrek) sortutako hondakinak bakarrik inbentariatu badira ere, batez ere infekziosoak izan zitezkeen ehunekin kontaktuan egondako hondakin infekziosoak (eskularru erabiliak, xiringak eta abar).

Sendagai toxikoen hondakinak eta produktu kimikoak ere sartzen dira kategorian honetan, aurretik aipatutakoak baino kopuru txikiagoa sortzen bada ere.

4.16.2 Evolución 1994-1998

Este grupo no fue considerado en el Inventario previo, por lo que no se pueden realizar comparaciones.

En el capítulo 8, dedicado a los residuos emergentes, se analizan más en profundidad los residuos de construcción y demolición.

4.17 CER 18: RESIDUOS MÉDICOS O VETERINARIOS

4.17.1 Resultados del inventario


La categoría CER 18 engloba a los residuos médicos o veterinarios, aunque se han inventariado únicamente los residuos procedentes de actividades médicas o paramédicas (hospitales, centros de salud, laboratorios, etc.), fundamentalmente residuos infecciosos por haber estado en contacto con tejidos potencialmente infectados, tales como guantes usados, jeringuillas, etc.

También se incluyen productos químicos y residuos de medicamentos tóxicos, aunque se generan en menor cantidad que los anteriores.


28. taula. EHK 18 kategoriariko dagozkion 1998ko Hondakin Arriskutsuen Inbentarioaren emaitzak, eta 1994-1998 epeari dagokion bilakaera. Datuak urteko tonatan daude adierazita.

Tabla 28. Resultados del Inventario de Residuos Peligrosos 1998 para la categoría CER 18, y evolución 1994-1998. Datos en Tm/año.

EHK CER	94ko deskribapena Descripción 94	98ko deskribapena Descripción 98	94ko t Tm. 94	98ko t Tm. 98	98 - 94
180103	Infekzioen prebentziorako betebeharrak bereziak bete behar dituzten biltzaileak eta ezabaketako hondakinak <i>Residuos cuya recogida y eliminación es objeto de requisitos especiales para prevenir infecciones</i>	Infekzioen prebentziorako betebeharrak bereziak bete behar dituzten biltzaileak eta ezabaketako hondakinak <i>Residuos cuya recogida y eliminación es objeto de requisitos especiales para prevenir infecciones</i>	0	626	626
180106		Substantzia arriskutsuak dituzten produktu kimikoak <i>Productos químicos que contienen sustancias peligrosas</i>	0	11	11
180108		Botika zitotoxikoak <i>Medicamentos citotóxicos</i>	0	90	90
180109		Beste zenbait botika <i>Otros medicamentos</i>	0	0	0
18	Medikuntza- edo albaitaritzaz-zerbitzuetako edo/eta horiekin elkarturiko ikerketako hondakinak (zuzeneko jatorria zerbitzu medikoetan ez duten sukaldariko edo jatetxeetako hondakinak izan ezik) <i>Residuos de servicios médicos o veterinarios y/o de investigación asociada (salvo los residuos de cocina y de restaurante no procedentes directamente de los servicios médicos)</i>		0	727	727



86. irudia. EHK 18 kategoriari dagokion sortutako hondakin-kopurua.
Figura 86. Cantidades de residuos generadas de la categoría CER 18.




87. irudia. EHK 18 kategoriari dagozkion hondakinen banaketa Lurralde Historikoka.
Figura 87. Distribución de los residuos de la categoría CER 18 por Territorios Históricos.

Errausketa izaten da osasun-hondakinei ematen zaien tratamendu ohikoena (539 tona, % 74,2). Hondakinean egon litezkeen agente patogenoen suntsiketa ziurtatzen du tratamendu-mota horrek.

El tratamiento habitual de este tipo de residuos sanitarios es la incineración (539 Tm, un 74,2%), tratamiento que asegura la destrucción de los agentes patógenos que potencialmente se encuentran en el residuo.

Hondakinean leudekeen agente patogenoak suntsitzeko aldez aurreko tratamenduren bat, hori da errausketaren alternatiba.


La alternativa a este tratamiento es la eliminación con algún tipo de tratamiento previo que asegure la destrucción de los agentes patógenos en el residuo.



88. irudia. EHK 18 kategoriako hondakinei aplikatutako kudeaketa.
Figura 88. Gestión aplicada a los residuos de la categoría CER 18.

Osasun-hondakinetan espezializatutako enpresek (Euskal Autonomia Erkidegokoek batik bat) jasotzen dituzte hondakin horiek, azken kudeaketa (errausketa) E.A.E.tik kanpoko kudeatzaileen esku badago ere gehienbat, Bizkaiko Guruzetako Ospitalean izan ezik.

La recogida de estos residuos se realiza por empresas especializadas en residuos sanitarios, mayoritariamente de la Comunidad Autónoma del País Vasco, aunque la gestión final (incineración) corre a cargo básicamente de gestores ubicados fuera de la C.A.P.V., a excepción del Hospital de Cruces en Bizkaia.



89. irudia. E.A.E.ko eta E.A.E.tik kanpoko enpresek kudeatutako EHK 18 kategoriari dagozkion hondakinen portzentajeak.
Figura 89. Proporción de los residuos de la categoría CER 18 gestionados por empresas de la C.A.P.V. y por empresas de fuera de la C.A.P.V.

4.17.2 1994-1998 epeko bilakaera

1994ko Inbentarioan osasun-hondakinei eginiko aipamen bakarra 20 multzoan ageri zen, etxe-hondakin gisara ageri ere. Honako Inbentario honetan, ordea, etxeetakoak ez diren 727 tona osasun-hondakinen kudeaketa jaso da.

4.18 EHK 19: HONDAKINEN EDO URAREN TRATAMENDURAKO INSTALAZIOETAKO HONDAKINAK

4.18.1 Inbentarioaren emaitzak

Hondakin edo ur-tratamendurako instalazioetako 7180 tona hondakin inbentariatu ziren 1998an, hau da, Euskal Autonomia Erkidegoan sortzen den hondakin arriskutsuen guztizkoaren %2,5.

Honako hau da batik bat hondakin horien jatorria:

- Industria eta hirietako hondakin-uren tratamendu-instalazioak. Lohiak eta bestelako hondakinak (osagai ugari dituztenak, instalaziora sartzean uraren jatorri eta kalitatearen eta aplikatzen zaien tratamenduaren arabera) sortzen dira instalazio horietan (4845 tona).
- Hondakinen tratamendurako instalazioak (disoluzio azido edo alkalinoen neutralazioa, metalen berreskuratzea, olioaren berreskuratzea... esate baterako). Hondakin-lohiak sortu

4.17.2 Evolución 1994-1998

La única referencia a residuos sanitarios realizada en el Inventario de 1994 fue codificada en el grupo 20 como generación doméstica. En el presente Inventario, sin embargo, se ha detectado la gestión de 727 Tm de residuos sanitarios de procedencia no domiciliaria.


4.18 CER 19: RESIDUOS DE INSTALACIONES DE TRATAMIENTO DE RESIDUOS O AGUA

4.18.1 Resultados del inventario

Se han inventariado 7.180 Tm de residuos de instalaciones de tratamiento de residuos o agua en 1998, lo que supone un 2,5% del total de residuos peligrosos de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

Estos residuos provienen fundamentalmente de:

- Plantas de tratamiento de aguas residuales industriales y urbanas, en las que se generan lodos y otros residuos de composición diversa dependiendo del origen y calidad del agua de entrada a la planta y del tipo de tratamiento que se le aplique (4.845 Tm).
- Instalaciones de tratamiento de residuos, como por ejemplo neutralización de soluciones ácidas o alcalinas, recuperación de metales, recuperación de aceites, etc. Este tipo de tra-



90. irudia. EHK 19 kategoriarri dagokion sortutako hondakin-kopurua. **Figura 90.** Cantidades de residuos generadas de la categoría CER 19.

ohi ditu tratamendu-mota horrek, eta metal-hidroxidoen lohiak izaten dira ugariak (1582 tona).

Zaborteigira eramaten dira hondakin horietarik gehienak (7054 tona, % 98,3), egonkortze-tratamenduren bat aplikatuta (zementua, karea edo antzekorik gehitzea, normalean), edo hondakin arriskutsuetarako zaborteigiren batean uzten dira.


tamiento genera lodos residuales, siendo los lodos de hidróxidos metálicos los generados en mayor cantidad (1.582 Tm).

Estos residuos se depositan casi en su totalidad en vertedero (7.054 Tm, 98,3%) con algún tipo de tratamiento para su inertización, que generalmente consiste en la adición de cemento, cal o similares, o bien se depositan en un vertedero para residuos peligrosos.

29. taula. EHK 19 kategoriari dagozkion 1998ko Hondakin Arriskutsuen Inbentarioaren emaitzak, eta 1994-1998 epeari dagokion bilakaera. Datuak urteko tonatan daude adierazita.

Tabla 29. Resultados del Inventario de Residuos Peligrosos 1998 para la categoría CER 19, y evolución 1994-1998. Datos en Tm/año.

EHK CER	94ko deskribapena Descripción 94	98ko deskribapena Descripción 98	94ko t Tm. 94	98ko t Tm. 98	98 - 94
190107	Hondakinen tratamenduko hondakin solidoak Residuos sólidos del tratamiento de residuos	Gasen tratamenduko hondakin solidoak Residuos sólidos del tratamiento de gases	0	14	14
190201	Metal-hidroxidozko lohiak eta metalen disolbaezintasunaren tratamenduko beste zenbait lohi Lodos de hidróxidos metálicos y otros lodos del tratamiento de la insolubilización de metales	Metal-hidroxidozko lohiak eta metalen disolbaezintasunaren tratamenduko beste zenbait lohi Lodos de hidróxidos metálicos y otros lodos del tratamiento de insolubilización de metales	23.049	1.582	-21.467
190204		Aldez aurretik nahasitako hondakinak, gutxienez hondakin arriskutsu batez osatuak Residuos mezclados previamente compuestos por al menos un residuo peligroso	0	35	35
190301	Estekatzaile hidraulikoekin egonkortu/solidotutako hondakinak Residuos estabilizados/solidificados con ligantes hidráulicos		16.721	0	-16.721
190701	Hondakindegiko lixibiatuak Lixiviados de vertedero	Hondakindegiko lixibiatuak Lixiviados de vertedero	0	327	327
190803	Hondar-olioa/-ura bereiztean sortutako gantz eta olioen nahasteak Mezclas de grasa y aceite procedentes de la separación aceite/agua residual	Hondar-olioa/-ura bereiztean sortutako gantz eta olioen nahasteak Mezclas de grasa y aceite procedentes de la separación aceite/agua residual	0	1.235	1.235
190804	Industriako hondakin-uren arazketako lohiak Lodos del tratamiento de aguas residuales industriales	Industriako hondakin-uren arazketako lohiak Lodos del tratamiento de aguas residuales industriales	0	1.980	1.980
190805	Hirietako hondakin-uren arazketako lohiak Lodos del tratamiento de aguas residuales urbanas	Hirietako hondakin-uren arazketako lohiak Lodos del tratamiento de aguas residuales urbanas	0	1.629	1.629
190999	Beste kategorian batean zehaztu gabeko hondakinak Residuos no especificados en otra categoría	Beste kategorian batean zehaztu gabeko hondakinak Residuos no especificados en otra categoría	0	376	376
19	Hondakinen tratamenduko instalazioetako, hondakin-uren kanpo-araztegiak eta uraren industriako hondakinak Residuos de instalaciones para el tratamiento de residuos, plantas de tratamiento de aguas residuales e industria del agua		39.770	7.180	-32.590




91. irudia. EHK 19 kategoriari dagozkien hondakinen banaketa Lurralde Historikoka.
Figura 91. Distribución de los residuos de la categoría CER 19 por Territorios Históricos.

Birziklatzea da gutxien erabiltzen den aukera (119 tona, % 1,7), metalen, disolbatzaileen eta olioen berreskuratze-jarduerarik egiten bada ere.

El reciclaje es una opción menos utilizada (119 Tm, un 1,7%), aunque se realizan operaciones tales como recuperación de metales, disolventes o aceites.

Energi balorizazioari dagokionez, ez du guztizkoaren % 0,1 (6 tona 1998an) gainditzen hondakin-mota honetan.


La valorización energética de este tipo de residuos no supera el 0,1% del total (6 Tm en 1998).



92. irudia. EHK 19 kategoriako hondakinei aplikatutako kudeaketa.
Figura 92. Gestión aplicada a los residuos de la categoría CER 19.

Euskal Autonomia Erkidegoko enpresek burutu ohi dute hondakin hauen % 95,4ren (6851 tona) kudeaketa.

La gestión de estos residuos se lleva a cabo por empresas de la Comunidad Autónoma del País Vasco en un 95,4% (6.851 Tm).



93. irudia. E.A.E.ko eta E.A.E.tik kanpoko enpresek kudeatutako EHK 19 kategoriari dagozkion hondakinen portzentajeak.

Figura 93. Proporción de los residuos de la categoría CER 19 gestionados por empresas de la C.A.P.V. y por empresas de fuera de la C.A.P.V.

4.18.2 1994-1998 epeko bilakaera


1994ko Inbentarioan 19. multzoan jarritako 39.770 tona hondakinak desklasifikatu egin dira, geldo gisara katalogatu baitira harrezkero.

Hala eta guztiz ere, hondakin-uren lohi eta opilen sarrera handia nabari da kudeaketa-sisteman, ekoizpen-instalazioetan bertan ari baitira jartzen araztegiak.

4.18.2 Evolución 1994-1998

Las 39.770 Tm de residuos considerados dentro del grupo 19 por el Inventario de 1994 han quedado desklasificados al ser catalogados como inertes.

Sin embargo, se detecta una fuerte entrada en la gestión de lodos y tortas de tratamiento de aguas residuales, debido a la implantación de depuradoras en las propias plantas de producción.



94. irudia. EHK 19 kategoriari dagozkion hondakinen sorreraren bilakaera 1994-1998 epean. Bereizi egin dira 1994an kontuan hartutako hondakinak eta 1998an desklasifikatutakoak.

Figura 94. Evolución 1994-1998 de la generación de residuos de la categoría CER 19. Se diferencian los residuos considerados en 1994 y deskasificados en 1998.

4.19 EHK 20: HIRI-HONDAKINEN ANTZEKOAK

4.19.1 Inbentarioaren emaitzak

EHK 20 kategoriako hondakin arriskutsutzat sartu dira inbentarioan hodi fluoreszenteak eta merkurioa daukaten beste hondakin batzuk. 1998an multzo honetako 17 tona hondakin sortu ziren, Euskal Autonomia Erkidego osoko hondakin arriskutsuen gutzitzaoren % 0,1 baino gutxiago.

4.19 CER 20: RESIDUOS ASIMILABLES A URBANOS

4.19.1 Resultados del inventario

Se han inventariado como residuos peligrosos de la categoría CER 20 los tubos fluorescentes y otros residuos que contienen mercurio, que se han generado en 1998 en una cantidad de 17 Tm, menos de un 0,1% del total de residuos peligrosos de la Comunidad Autónoma del País Vasco.


30. taula. EHK 20 kategoriari dagozkion 1998ko Hondakin Arriskutsuen Inbentarioaren emaitzak, eta 1994-1998 epeari dagokion bilakaera. Datuak urteko tonatan daude adierazita.

Tabla 30. Resultados del Inventario de Residuos Peligrosos 1998 para la categoría CER 20, y evolución 1994-1998. Datos en Tm/año.

EHK CER	94ko deskribapena Descripción 94	98ko deskribapena Descripción 98	94ko t Tm. 94	98ko t Tm. 98	98 - 94
200116	Garbigarriak Detergentes	Garbigarriak (200116 kategoriakoak izan ezik) Detergentes (excepto 200116)	8.470	0	-8.470
200118	Botikak Medicamentos	Botikak (200131 kategoriakoak izan ezik) Medicamentos (excepto 200131)	320	0	-320
200120	Pilak eta metagailuak Pilas y acumuladores	Pila eta metagailuak (200130 kategoriakoak izan ezik) Pilas y acumuladores (excepto 200130)	736	0	-736
200121	Hodi fluoreszenteak eta merkurioa duten beste zenbait hondakin Tubos fluorescentes y otros residuos que contienen mercurio	Hodi fluoreszenteak eta merkurioa duten beste zenbait hondakin Tubos fluorescentes y otros residuos que contienen mercurio	314	17	-297
20	Merkataritzako, industriako eta erakundeetako hiri-hondakinak edo antzekoak, gaika bildutakoak barne Residuos municipales y residuos asimilables procedentes del comercio, industrias e instituciones, incluyendo fracciones recogidas selectivamente		9.840	17	-9.823


Batez ere Bizkaian sortzen dira mota honetako hondakinak, eta birziklatu egiten dira gehienak, daukaten merkurioa berreskuratuz.

Se trata de residuos que se generan fundamentalmente en el Territorio Histórico de Bizkaia y son reciclados en su mayor parte, recuperándose el mercurio que contienen.



95. irudia. EHK 20 kategoriako hondakinei aplikatutako kudeaketa.


Figura 95. Gestión aplicada a los residuos de la categoría CER 20.



96. irudia. EHK 20 kategoriari dagozkion hondakinen banaketa Lurralde Historikoka.
Figura 96. Distribución de los residuos de la categoría CER 20 por Territorios Históricos.

Hondakin-mota hau ia portzentaje berean kudeatzen dute Euskal Autonomia Erkidegoko eta kanpoko enpresek.

Este tipo de residuos se gestionan casi por igual por empresas de la Comunidad Autónoma del País Vasco y empresas foráneas.



97. irudia. E.A.E.ko eta E.A.E.tik kanpoko enpresek kudeatutako EHK 20 kategoriari dagozkion hondakinen portzentajeak.
Figura 97. Proporción de los residuos de la categoría CER 20 gestionados por empresas de la C.A.P.V. y por empresas de fuera de la C.A.P.V.

4.19.2 1994-1998 epeko bilakaera

20 kategoriako hondakinen kudeaketak horren nabarmen behera egin izanak honako hau izan du eragile nagusi: detergenteei aplikatzen zitzaien 200116 kodea arriskutsuen katalogotik

4.19.2 Evolución 1994-1998

El acusado descenso en la gestión de residuos del grupo 20 se debe básicamente a que el código 200116 aplicado a los detergentes ha sido descatalogado como peligroso, por lo que no

kendu egin dutela. Honenbestez, ez dira aintzat hartu 1994an Inbentariora bildutako hondakin honen 8.470 tonak.


Bestalde, etxeetako sendagaiak ez daude Kontrol eta Jarraipen Dokumentuen tramitaziopean, eta osasun zein industria-jatorrikoak 18 kategorian jarri dira.

Arrazoibide berbera erabili da pila eta metagailuei dagokienez, eta 1606 multzoan ageri dira. Alabaina, hazkunde handia izan da kategoria honetako hondakinen kudeaketan: 1994ko Inbentarioan 968 tona pila ageri ziren (233 tona 16 kategorian eta 735 20.ean); 1998koan, berriz, 1773 tona, hau da, 1,8 bider gehiago.

han sido consideradas las 8.470 Tm de este residuo censadas en 1994.

Por otro lado, los medicamentos de procedencia doméstica no están sujetos a la tramitación de Documentos de Control y Seguimiento y los de procedencia industrial o sanitaria han sido reflejados en el grupo 18.

Este mismo razonamiento es aplicable a las pilas y acumuladores, que han quedado recogidas en el grupo 1606. Sin embargo, la gestión en este caso ha experimentado un sensible aumento, ya que el total de pilas recogido en el Inventario de 1994 ascendía a 968 Tm (233 Tm en el grupo 16 y 735 en el grupo 20), mientras que en 1998 han sido gestionadas 1.773 Tm, es decir, 1,8 veces más.



98. irudia. EHK 20 kategoriariko hondakinen sorreraren bilakaera 1994-1998 epean. Berezi egin dira 1994an kontuan hartutako hondakinak eta 1998an desklasifikatutakoak.

Figura 98. Evolución 1994-1998 de la generación de residuos de la categoría CER 20. Se diferencian los residuos considerados en 1994 y desclasificados en 1998.

5

Arreta berezia behar duten hondakinak

Residuos de especial interés

Arreta berezia behar duten hondakinak Residuos de especial interés

5.1 POLIKLOROBIFENILOEN (PCB) HONDAKINAK

Baztertutako ekipoetan bereziki toxikoak dira material dielektriko piralenodun transformadore eta kondentsadoreak, horien osagaietako bat baitira poliklorobifeniloak (PCB). Erruz erabili izan da produktu toxiko hau transformadoreen eta beste aparatu elektriko batzuen isolamendu termikorako.

Piralenoa ez da apenas erabiltzen jada material dielektriko gisara, oraindik ere funtzionamenduan dauden eta baztertzeko diren ekipoek erabat ezabatzen diren arte hondakin arriskutsuak sortzen jarraituko duten arren.

5.1 RESIDUOS DE POLICLOROBIFENILOS (PCB)

Entre los equipos desechados destacan por su toxicidad los transformadores y condensadores con el material dieléctrico piraleno, en cuya composición se encuentran los policlorobifenilos (PCB). Este producto tóxico ha sido utilizado ampliamente para el aislamiento térmico de transformadores y otros aparatos eléctricos.

El uso del piraleno como material dieléctrico está desapareciendo, aunque los equipos en uso que se van desechando aún seguirán generando residuos peligrosos hasta su completa eliminación.

31. taula. 1998an inbentariatutako PCB-hondakinak. Tonatan daude datuak.

Tabla 31. Residuos de PCB inventariados en 1998. Datos en Tm.

EHK CER	Deskribapena Descripción	Kopurua (t/urte) Cantidad (Tm/año)
130301	PCB edo PCT duten bero-isolamendu eta -transmisioko olio erabiliak Aceites y otros líquidos de aislamiento y transmisión de calor que contienen PCB o PCT	261
160201	PCB edo PCT dituzten transformadoreak eta kondentsadoreak (16 02 10 kategoriakoa izan ezik) Transformadores y condensadores que contienen PCB o PCT (excepto 16 02 10).	421
GUZTIRA / TOTAL		682

Inbentario hau osatzeko banatu egin dugu 160201 kodepean inbentariatutako kopurua: 160201 kodeari eman zaizkio 2/3, metal-txatarra (transformadorearen edo kondentsadorearen karkasa) portzentajea hori delakoan, eta 130301 kodeari (PCB edo PCT daukaten olio eta beste-lako isolamendu eta bero-transmisio likidoko) gainerako 1/3.

Poliklorobifeniloak (PCB) dituzten olio eta beste-lako isolamendu-likidoei dagokienez, 261 tona sortu ziren 1998an.

Para la elaboración de este Inventario se ha repartido la cantidad inventariada con el código 160201, asignando 2/3 partes al 160201, considerando que esta es la proporción de chatarra metálica (carcasa del transformador o condensador), y 1/3 parte al 130301, aceites y otros líquidos de aislamiento y transmisión de calor que contienen PCB o PCT.


Los aceites u otros líquidos de aislamiento que contienen policlorobifenilos (PCB) se han generado en una cantidad de 261 Tm en 1998.

PCB hondakin gehienak (214 tona) erraustu egiten dira, energi berreskurapenik gabe. Gainerakoak ezabatu (44 tona) edo birziklatu (2,5 tona) egiten dira.

Karkasa guztiak birziklatzen dira (421 tona), metal-txatarra tratamendua ematen baitzaie.

La mayor parte de los residuos de PCB se destinan a incineración sin recuperación energética (214 Tm). El resto se eliminan (44 Tm), o se reciclan (2,5 Tm).

La carcasa se destina en su totalidad a reciclaje (421 Tm), ya que puede ser tratada como chatarra metálica.




99. irudia. PCB duten hondakinei aplikatzen zaizkien kudeaketa-sistemen banaketa.
Figura 99. Distribución de los tipos de gestión aplicados a los residuos con PCB.

Euskal Autonomia Erkidegoko enpresak berak transferentzia-zentro dira PCB duten olio-hondakinen zati handienarentzat eta hauen azken helmuga gehienetan atzerriko instalazioetan erraustea izaten da (ikus 6.2 kapitulua, esportazioak).

Hondakinak esportatu arte enpresa hauek egiten duten biltegitratzeak eta Euskal Herritik kanpoko hondakinak ere jasotzeak, konplexuago bihurtzen du bertan kudeatutako kopuruen balantzeak egitea.

Empresas de la propia Comunidad Autónoma del País Vasco hacen de centros de transferencia para la mayor parte de los residuos de aceites con PCB, cuyo destino final es generalmente la incineración en instalaciones extranjeras (ver capítulo 6.2, exportaciones).


El almacenamiento que realizan estas empresas hasta que realizan la exportación de los residuos, así como el hecho de que también reciben residuos de fuera del País Vasco complica el cierre de balances de cantidades gestionadas por las mismas.



100. irudia. PCBdun hondakinak. E.A.E.ko kudeatzaileak eta E.A.E.tik kanpokoak dituztenen arteko banaketa.
Figura 100. Residuos con PCB. Distribución por gestores de la C.A.P.V. y gestores de fuera de la C.A.P.V.

1994ko Inbentarioarekin alderatuz sortutako kopuruen hazkundera antzematen da, itxuraz bederen (682 tona 1998an, 252 tona 1994an). 1994ko Inbentarioan, izan ere, ez zen kontuan hartu transformadoreen metalezko karkasa, PCBdun olioien hondakinak bakarrik baizik. Horregatik dira antzekoak bi Inbentarioen emaitzak: 261 tona 1998an eta 252 tona 1994an.

Respecto al Inventario de 1994 se detecta un aparente aumento de las cantidades generadas (682 Tm en 1998 frente a 252 Tm en 1994). El origen de este resultado se debe a que en el Inventario de 1994 no se consideró la carcasa metálica de los transformadores, sino solamente los residuos de aceites con PCB, por lo que los resultados en ambos Inventarios son similares (261 Tm en 1998 frente a 252 Tm en 1994).




101. irudia. PCBdun hondakinak. 1994-1998 epeko bilakaera.
Figura 101. Residuos con PCB. Evolución 1994-1998.

50 enpresatik gora sortzen dituzte PCBdun hondakinak, gehienak elektrizitate-banaketa enpresa batekoak badira ere. Bizkaian sortzen da hondakin gehien (396 tona, % 58), Gipuzkoan

Los residuos con PCB son generados por más de 50 empresas, aunque una gran parte de los mismos tiene su origen en una empresa de distribución de energía eléctrica. La mayor parte de

ondoren (200 tona, %29,4) eta Araban azkenik (86 tona, %12,6).

estos residuos se generan en Bizkaia (396 Tm, 58%), seguido de Gipuzkoa (200 Tm, 29,4%) y finalmente Araba (86 Tm, 12,6%).



102. irudia. PCBdun hondakinen sorkuntza Lurralde Historikoka.
Figura 102. Generación de residuos con PCB por Territorios Históricos.

5.2 DISOLBATZAILE ERABILIAK DITUZTEN HONDAKINAK


Disolbatzaile erabilien sorkuntza (oro har) aztertzen da kapitulu honetan, bai EHK 07n (prozesu kimiko organikoen hondakinak) bai EHK 08n (pintura, berniz eta tinten hondakinak) eta EHK 14n (disolbatzaile gisara erabilitako substantzia organikoen hondakinak) sailkatutakoak ere.

5.2 RESIDUOS CON DISOLVENTES USADOS

Se analiza en este capítulo la generación con disolventes usados en su globalidad, tanto los clasificados en el CER 07 (residuos de procesos químicos orgánicos) como los clasificados en el CER 08 (residuos de pinturas, barnices y tintas) y en el CER 14 (residuos de sustancias orgánicas utilizadas como disolventes).

32. taula. E.A.E.n 1998an sortutako halogenodun disolbatzaileen hondakinak. Tonatan daude datuak.
Tabla 32. Residuos con disolventes halogenados generados en la C.A.P.V. en 1998. Datos en Tm.

EHK CER	Deskribapena Descripción	Kopurua (t/urte) Cantidad (Tm/año)
070103	Disolbatzaileak, garbiketa-likidoak eta ama likore organohalogenodunak <i>Disolventes, líquidos de limpieza y licores madre organohalogenados</i>	17
070203	Disolbatzaileak, garbiketa-likidoak eta ama likore organohalogenodunak <i>Disolventes, líquidos de limpieza y licores madre organohalogenados</i>	15
070603	Disolbatzaileak, garbiketa-likidoak eta ama likore organohalogenodunak <i>Disolventes, líquidos de limpieza y licores madre organohalogenados</i>	4
070703	Disolbatzaileak, garbiketa-likidoak eta ama likore organohalogenodunak <i>Disolventes, líquidos de limpieza y licores madre organohalogenados</i>	3
080301	Halogenodun disolbatzaileak dituzten tinten hondakinak <i>Residuos de tintas que contienen disolventes halogenados</i>	0
140102	Beste zenbait disolbatzaile eta disolbatzaile halogenodunen nahasteak <i>Otros disolventes y mezclas de disolventes halogenados</i>	240
140201	Disolbatzaileak eta halogenodun disolbatzaileen nahasteak <i>Disolventes y mezclas de disolventes halogenados</i>	13
140302	Beste zenbait disolbatzaile halogenodun <i>Otros disolventes halogenados</i>	34
140401	Klorofluorokarbueroak <i>Clorofluorocarbonos</i>	2
DISOLBATZAILE HALOGENODUNAK GUZTIRA TOTAL DISOLVENTES HALOGENADOS		329



103. irudia. Disolbatzaileak dituzten hondakin banaketa Lurralde Historikoka eta disolbatzaile-motaren arabera.
Figura 103. Distribución de los residuos con disolventes por Territorios Históricos y tipo de disolvente.

33. taula. E.A.E.n 1998an sortutako halogenorik ez duten disolbatzaileen hondakinak. Tonatan daude datuak.
Tabla 33. Residuos con disolventes no halogenados generados en la C.A.P.V. en 1998. Datos en Tm.


EHK CER	Deskribapena Descripción	Kopurua (t/urte) Cantidad (Tm/año)
070104	Beste zenbait disolbatzaile, garbiketa-likido eta ama likore organiko <i>Otros disolventes, líquidos de limpieza y licores madre orgánicos</i>	49
070204	Beste zenbait disolbatzaile, garbiketa-likido eta ama likore organiko <i>Otros disolventes, líquidos de limpieza y licores madre orgánicos</i>	67
070304	Beste zenbait disolbatzaile, garbiketa-likido eta ama likore organiko <i>Otros disolventes, líquidos de limpieza y licores madre orgánicos</i>	2
070604	Beste zenbait disolbatzaile, garbiketa-likido eta ama likore organiko <i>Otros disolventes, líquidos de limpieza y licores madre orgánicos</i>	7
070704	Beste zenbait disolbatzaile, garbiketa-likido eta ama likore organiko <i>Otros disolventes, líquidos de limpieza y licores madre orgánicos</i>	71
080111	Disolbatzaile organikoak edo beste zenbait substantzia arriskutsu dituzten pintura eta bernizen hondakinak <i>Residuos de pintura y barniz que contienen disolventes orgánicos u otras sustancias peligrosas</i>	590
080113	Disolbatzaile organikoak edo beste zenbait substantzia arriskutsu dituzten pintura edo bernizen lohiak <i>Lodos de pintura o barniz que contienen disolventes orgánicos u otras sustancias peligrosas</i>	698
080115	Disolbatzaile organikoak edo beste zenbait substantzia arriskutsu dituzten pintura edo bernizen lohi urtsuak <i>Lodos acuosos que contienen pintura o barniz con disolventes orgánicos u otras sustancias peligrosas</i>	533
080310	Garbitzeko erabiltzen diren disolbatzaile organikoen hondakinak <i>Residuos de disolventes orgánicos utilizados para limpiar</i>	36
080409	Disolbatzaile organikoak edo beste zenbait substantzia arriskutsu dituzten itsasgarrien eta zigitatzaileen hondakinak <i>Residuos de pegamentos y sellantes que contienen disolventes orgánicos u otras sustancias peligrosas</i>	85
080413	Disolbatzaile organikoak edo beste zenbait substantzia arriskutsu dituzten itsasgarrien eta zigitatzaileen lohi urtsuak <i>Lodos acuosos que contienen pegamentos y sellantes con disolventes orgánicos u otras sustancias peligrosas</i>	87
140103	Beste zenbait disolbatzaile eta disolbatzaileen nahasteak <i>Otros disolventes y mezclas de disolventes</i>	704
140105	Halogenorik ez duten disolbatzaileen nahaste urtsuak <i>Mezclas acuosas de disolventes sin halógenos</i>	2
140107	Halogenodun disolbatzaileek ez duten lohiak edo hondakin solidoak <i>Lodos o residuos sólidos sin disolventes halogenados</i>	55
140303	Disolbatzaileak eta halogenorik ez duten disolbatzaileen nahasteak <i>Disolventes y mezclas de disolventes no halogenados</i>	44
140403	Beste zenbait disolbatzaile eta disolbatzaileen nahasteak <i>Otros disolventes y mezclas de disolventes</i>	30
140503	Beste zenbait disolbatzaile eta disolbatzaileen nahasteak <i>Otros disolventes y mezclas de disolventes</i>	397
140505	Beste zenbait disolbatzaile dituzten lohiak <i>Lodos que contienen otros disolventes</i>	19
HALOGENORIK GABEKO DISOLBATZAILEAK GUZTIRA TOTAL DISOLVENTES NO HALOGENADOS		3.477

3.806 tona disolbatzaile erabili eta disolbatzaile-dun hondakin inbentariatu ziren guztira 1998an. Horietarik 429 tonak (%8,6) disolbatzaile halogenatuak zeuzkaten.

Arabak sortzen du -itxura batean behintzat- disolbatzaile-dun hondakin gehien, eta badu horrek bere zioa: kudeatzaileetako baten bilketa-sistema berezia (4.13 kapituluaz azaldua duguna). Amarru metodologikoa da aipatu sistema, eta horren arabera kudeatzaile hori hondakinaren sortzailetzat ageri da Inbentarioan.

Se ha inventariado la generación de un total de 3.806 Tm de disolventes usados y residuos con disolventes en 1998, de los cuales 329 Tm (8,6%) contienen disolventes halogenados.


El hecho de que aparentemente los residuos con disolventes se generen en Araba de forma mayoritaria es debido al particular sistema de recogida de uno de los gestores, tal y como se expone en el capítulo 4.13, y supone un artificio metodológico por el que este gestor se ha inventariado como productor del residuo.



104. irudia. Kudeatzailea E.A.E.koa izan ala ez, horren araberako disolbatzaile-dun hondakinaren banaketa.
Figura 104. Distribución de los residuos con disolventes según sea el gestor de la C.A.P.V. o no.

Bada Euskal Autonomia Erkidegoan hondakin horiek kudeatzeko adinako gaitasunik; hala eta guztiz ere kanpoko enpresek kudeatzen dute horien portzentaje handi bat (ez handiena, hala ere: 1.652 tona, %43,4).


A pesar de que en el País Vasco existe una capacidad suficiente para gestionar este tipo de residuos, un alto porcentaje, aunque no mayoritario, es gestionado por empresas foráneas (1.652 Tm, un 43,4%).



105. irudia. Disolbatzaile-dun hondakinaren banaketa, horiei aplikatutako kudeaketa-sistemaren arabera.
Figura 105. Distribución de los residuos de disolventes según el tipo de gestión aplicado.

Oso jarduera zabaldua da distilazio bidezko disolbatzaileen birziklapena, eta hala ageri du 105. irudiak (%34,9, 1.328 tona). Tratamendu fisiko-kimikoa aplikatu ondoren zabortegira eramaten diren 2.478 tonak (%65,1), berriz, honako hauei dagozkie: beren konposizioan disolbatzaile-portzentaje txikiagoa duten pintura, berniz edo tinten hondakinei.

El reciclaje de disolventes mediante destilación es una práctica ampliamente implantada, tal y como refleja el 34,9% de la Figura 105 (1.328 Tm). Las 2.478 Tm a las que se aplica un tratamiento fisicoquímico seguido de eliminación en vertedero (65,1%) corresponden en su mayor parte a residuos de pinturas, barnices o tintas con un porcentaje más reducido de disolventes en su composición.



106. irudia. Disolbatzailedun hondakinen bilakaera 1994-1998 epean.
Figura 106. Evolución 1994-1998 de los residuos con disolventes.

1994koaren aldean hazkunde nabarmena izan da 1998an disolbatzaileen alorrean (1422 tonatik 3.806 tonara), bi faktoreren bat egiteari esker batik bat.

En el campo de los disolventes se detecta un notable aumento de las cantidades inventariadas (de 1.422 Tm a 3.806 Tm) respecto a las estimaciones realizadas en 1994, que se debe fundamentalmente a una combinación de dos factores.

Batetik, prozesu kimiko organikoek sortutako disolbatzaileen hondakinak ere (EHK 07) sartzen dira Inbentario honetan. 1994koan, aldiz, ez ziren aintzat hartu.

Por un lado, el presente Inventario incluye aquellos residuos de disolventes procedentes de procesos químicos orgánicos (CER 07), que no se tenían en cuenta en el Inventario correspondiente a 1994.

Bestetik, disolbatzailedun hondakinen kopuruak (bai EHK 08koak bai EHK 14koak) honela kalkulatu ziren Inbentario hartan: lehengaien aurreikusitako kontsumo-balioei halako hondakin-sorretara faktoreak aplikatu zitzaizkien. Baliteke, hortaz, une hartan Euskal Autonomia Erkidegoan sortutako disolbatzailedun hondakinen kopuruak behetik jo izana.

Por otro lado, las cantidades generadas de residuos con disolventes, tanto del CER 08 como del CER 14, se estimaron en aquel Inventario aplicando diversos factores de generación de residuos a valores estimados de consumo de materias primas, por lo que es probable que se hubiesen subestimado las cantidades de residuos con disolventes generadas en la Comunidad Autónoma del País Vasco en aquel momento.

5.3 BATERIAK ETA PILA ERABILIAK

Bi EHK kategoria ezberdinetan zeuden sailkatuta bateriak eta pila erabiliak 1994an: EHK 16an (beste kategoria batean zehaztu gabeko hondakinak) eta EHK 20an (hirietakoen antzeko hondakinak). Pila, metagailu eta bateria erabili guztiak EHK 16an sailkatu dira 1998ko Inbentario honetan.

5.3 BATERÍAS Y PILAS USADAS

Las baterías y pilas usadas se encontraban clasificadas en dos categorías CER diferentes en 1994: CER 16 (residuos no especificados en otra categoría), y CER 20 (residuos asimilables a urbanos). En este inventario de 1998 todas las pilas, acumuladores y baterías usadas se han clasificado en la categoría CER 16.


34. taula. Pila eta bateria erabiliak.

Tabla 34. Pilas y baterías usadas.

EHK CER	Deskribapena Descripción	Kopurua (t/urte) Cantidad (Tm/año)
160601	Berunezko bateriak Baterías de plomo	1.090
160602	Ni-Cd-zko bateriak Baterías de Ni-Cd	72
160603	Merkuriozko pila lehorrak Pilas secas de mercurio	1
160604	Pila alkalinoak (160603 kategoriakoak izan ezik) Pilas alcalinas (excepto 160603)	177
160605	Beste zenbait pila eta metagailu Otras pilas y acumuladores	333
160606	Pila eta metagailuetako elektrolitoa Electrolito de pilas y acumuladores	100
GUZTIRA / TOTAL		1.773

1773 tona pila eta bateria inbentariatu dira guztira, hots, 1994ko Inbentarioan (969 tona) baino dezente gehiago. Gaikako bilketak kudeaketan eragindako hobekuntzari esker izan da, batik bat, hazkunde hori.

Se han inventariado un total de 1.773 Tm de pilas y baterías, lo cual supone un notable aumento respecto al Inventario de 1994 (969 Tm). Esto es debido principalmente a la mejora en la gestión mediante recogida selectiva de este tipo de residuos.




107. irudia. Pila eta bateria erabilien sorkuntza Lurralde Historikoka.


Figura 107. Distribución de la generación de pilas y baterías usadas por Territorios Históricos.

Birziklatu egiten dira pila eta bateria gehienak, eta Euskal Autonomia Erkidegoko enpresak kontratatzen dira –batez ere– hondakin horiek jaso eta kudeatzeko.


Las pilas y baterías se reciclan en su mayor parte, siendo principalmente empresas de la propia Comunidad Autónoma del País Vasco las contratadas para la retirada y gestión de estos residuos.



108. irudia. Kudeatzailea E.A.E.koa izan ala ez, horren arabera pila eta baterien banaketa.
Figura 108. Distribución de los residuos de pilas y baterías según sea el gestor de la C.A.P.V. o no.



109. irudia. Pila eta baterien hondakinen banaketa, horiei aplikatutako kudeaketa-sistemaren arabera.
Figura 109. Distribución de los residuos de pilas y baterías según el tipo de gestión aplicado



110. irudia. Pila eta baterien hondakinen bilakaera 1994-1998 epean.
Figura 110. Evolución 1994-1998 de los residuos de pilas y baterías.

Inportazio eta esportazioak
Importaciones y exportaciones

Inportazio eta esportazioak Importaciones y exportaciones

6.1 INPORTAZIOAK

Honako taula honek erakusten dizkigu 1998an euskal enpresek egindako inportazioen inguruko datu orokorrak:

6.1 IMPORTACIONES

La siguiente tabla muestra los datos generales correspondientes a las importaciones realizadas durante 1998 por empresas vascas:

35. taula. Hondakinen inportazioa 1998an.
Tabla 35. Importaciones de residuos en 1998.

EHK CER	Produktuaren izena Nombre de producto	Jatorria Origen	Tratamendua Tratamiento	t/urte Tm./año	%
100203	Altzairugintzako hautsak Polvos de acería	Belgika Bélgica	Birziklatzea Reciclado	19.439	21%
		Danimarka Dinamarca	Birziklatzea Reciclado	11.046	12%
		Frantzia Francia	Birziklatzea Reciclado	23.373	25%
		Luxenburgo Luxemburgo	Birziklatzea Reciclado	22.459	24%
		Portugal Portugal	Birziklatzea Reciclado	5.139	6%
100599	Oxido metalikoen hondakinak Residuos de óxidos metálicos	Suitza Suiza	Birziklatzea Reciclado	761	1%
100599	Oxido metalikoen hondakin solidoak Residuos de óxidos metálicos sólidos	Suitza Suiza	Birziklatzea Reciclado	512	1%
100699	Kobrearen hondakinak Residuos de cobre	Portugal Portugal	Birziklatzea Reciclado	1.424	2%
101099	Zinkaren hondakinak Residuos de zinc	Alemania Alemania	Birziklatzea Reciclado	2.774	3%
110202	Kobre-zementua Cemento de cobre	Norvegia Noruega	Birziklatzea Reciclado	2.822	3%
130301	PCBdun olioak Aceites con PCBs	Portugal Portugal	Erraustea Incineración	25	<1%
160201	Transformadoreak Transformadores	Portugal Portugal	Birziklatzea Reciclado	50	<1%
262030	Kobrearen eta zinkaren hondakinak Residuos de cobre y zinc	Estatu Batuak Estados Unidos	Birziklatzea Reciclado	3.204	<1%
GUZTIRA / TOTAL				93.029	

Konturatuko zinetenez, altzairutegietako hautsak (81.457 tona urtean) inportatutako hondakinen % 88 izan ziren.

Como puede observarse, los polvos de acería, con 81.457 Tm al año, suponen un 88% del total de los residuos importados.

Aipatzekoak dira, halaber, E.A.E.n dagoen transferentzia-zentro batek Portugaldik inportatutako transformadore elektrikoek PCBdun 25 tona olio eta horiei dagozkien 50 tona metalezko karkasa. Ingalaterrara bidaltzen dituzte gero hondakin horiek, E.A.E.n sortutako transformadore baztertuekin batera, behin betiko kudeaketa aplikatu diezaizkieten. Guztizko inportazioen kopuruarekin alderatuta txikia da oso hondakin horien portzentajea.

Gainerako hondakinek (guztizkoaren % 22) metal-edukia (zinka, kobrea, metal-oxidoak eta abar) dute ezaugarri nagusi.

Laburbilduz, metal-eduki handia duten hondakinak inportatzen ditu Euskal Autonomia Erkidegoak, eta bertako bi enpresatan birziklatzen dira.

Mendebaldeko Europa da inportazio ia guztien jatorria, Ameriketako Estatu Batuetatik ekartzen den % 3rena izan ezik.

6.2 ESPORTAZIOAK

36. taulak erakusten digu zein diren Euskal Autonomia Erkidegoak esportatzen dituen hondakin arriskutsuak, eta 111. irudian ikusten dira EHKren multzoetako bakoitzaren portzentaje kuantitatiboak.

